

# Mugan: Gazteak eta klima-aldaketa



munduko populazioaren egoera. 2009

gazteei buruzko gehigarria



# Mugan: gazteak eta klima-aldaketa

## Argitaratze-taldea

*Munduko populazioaren egoera. 2009 – Gazteei buruzko gehigarria*

Martín Caparrós (istorioak eta argazkiak),  
Laura Laski doktorea eta Victor Bernhardtz

### Administrazio-kontuetarako laguntzailea

Malak Khatib-Maleh

### Eskerrak

Gure eskerrik beroena eman nahi diegu UNFPAren bulego-  
etan bai han-hemengo herrialdeetan bai egoitzan bertan  
diharduten lankide ugariei eta partaide guztiei, emandako  
laguntza eta informazio guztiagatik, eta batik bat Filipinetan,  
Nigerren, Marokon nahiz Nigerian diren bulegoetakoei eta  
partaideei, batetik, eta bestetik, arabiar herrialdeetan nahiz  
Ozeano Barekoetan diren eskualde-bulegoetakoei, argitalpen  
honetako gizon-emakume gazteei elkarrizketa egiteko bidea  
erraztu zigutelako.

Eskerrak agertu nahi dizkiegu, bestalde, Werner Haug,  
Prateek Awasthi, Sabrina Juran, Richard Kollodge, Ziad  
Mikati, Saskia Schellekens eta Daniel Schensul doktoareari,  
emandako laguntza eta ekarpen handiengatik, eta batez ere  
Marjorie, Mariama, Messias, Kilom, Mandisa, Youness eta  
Fatimari, guri beren istorioen berri emateagatik.

# EDUKIA

HITZAURREA

IV

SARRERA

V



**Marjorie**

MASKOR-  
ARRANTZALE  
FILIPINARRA:  
UR EPELETAN

1



**Mariama**

ZEREAL-BANKU  
BATEKO KIDE  
NIGERTARRA:  
ERRESPETUA LORTU  
ETA JATEKOA  
BERMATZEA

7

# Mugan: Gazteak eta klima-aldaketa



**Messias**

AMAZONIAKO  
KOMUNITATE  
BATEKO  
LEHENDAKARIA:  
NEKAZARITZA  
IRAUNKORREAN  
AITZINDARIA

13



**Kilom**

NOBLE  
MARSHALDARRA:  
UHARTETIK  
EZ JOATEA


19



**Mandisa**

ESTATUBATUARRA:  
ASKATASUNERAKO  
ANTOLATZEA,  
HONDAMENDI  
BATI ERANTZUTEA

25



**Youness**

FUTBOLARI  
MAROKOARRA:  
BIZIMODU  
BERRI BATERA  
MOLDATZEA

31



**Fatima**

EKINTZAILE ETA  
ANTOLATZAILE  
NIGERIARRA:  
EGURRA UTZI  
ETA TELEFONO  
MUGIKOR BAT  
HARTZEA

37

ONDORIOAK 42

OHARRAK 43

Esku artean duzun gehigarri hau –*Munduko populazioaren egoerari buruzko UNFPAren txosteneko Gazteei buruzko gehigarria*– laugarren argitalpena da. Klima-aldaketa eta gazteak dira gehigarriaren ardatza, baina ikuspegi jakin honetatik aztertuta: zer-nolako eragina izango du klima-aldaketak gazteen bizimoduan, bizibidean, osasunean, eskubideetan eta garapenean? Baina zergatik heldu dio *Gazteei buruzko gehigarriak* gai horri? Funtsean, arrazoi nagusi batengatik: gaur egun gazte direnak egongo direlako datozen hamarkadetan aurrean, lehen ilaran, eta haiek egin beharko dietelako aurre klima-aldaketak ekarriko dituen erronkei.

*Gehigarriak* argi eta garbi agertzen duen bezala, klima-aldaketak dakartzan mehatxu nahiz aukera guztiekin borrokatu beharko dute gazteek, berdin izango dio borroka horretarako prest dauden ala ez, nahi duten ala ez. *Gehigarrian* agertzen diren gazteetako batzuk interesgune jakin sendo bat zuten helduaroan sartutakoan, baina oso bestelako zerbaitera bideratu zuten arreta gero, klima-aldaketaren berri jakin eta horrek norberaren bizimodu

nahiz komunitatearekin zer-nolako lotura zuen ohartutakoan.

Mundu osoko gazteak zutik daude gaur, eske eta eske, klima-aldaketari behar beste jaramon egin dakion. Haserretu egiten dituzte batzuetan ezinbestekoak ere badiruditen agertoki horiek, baina beraien ekarpenek aldaketa ekarriko dutelako ustea ere badute, aldi berean. Zazpi gazte agertzen dira txosten honetan. Bakoitzak bere istorioa kontatu digu. Eta guk, istorio horiek irakurrita, sumatu-edo egin dezakegu zer-nolako eragina izan dezakeen klima-aldaketak hainbat jatorri eta kulturatako jendearengan, bai eta ulertu ere, hobeto, zer-nolako aldaketak izango diren gazteen bizimoduan, aurreikuspenen arabera klima aldatzeak eragingo dituen ondorioak gertatu ahala.

Klima-aldaketa ez da fenomeno bakartu bat; aitzitik, gazteei ere eragingo die, eta bizitzako alderdi guztietan, gainera. Maiz askotan, klima-aldaketak ondorio bortitza goak izango ditu garapen bidean diren herrialdeetan, eta garapena bera arriskuan jartzen du, hortaz,

oinarri-oinarrizko beharrak ase ahal izatea bera zaildu eta oztopatuko duenez gero; izan ere, nola lortu inolako garapenik, kolokan baldin badaude ura, elikagaiak, saneamendua eta segurtasuna, besteak beste? Ezbairik gabe, klima-aldaketari egoki erantzuteko neurri zehatzak jartzen eta benetan gauzatzen ez baditugu, Milurtekoko Garapen Helburuak nekez beteko dira epe luzean.

Inoiz baino gazte gehiago bizi da gaur egun munduan, eta horregatik, laster izango diren zenbait gertakarik bizialdi osoan eragingo dietenez, zinez erabakigarria da haiengana gerturatzea eta gazteak ere klima-aldaketari erantzun behar horretan trebatzea eta tartean sartzea. Pobrezia, diskriminazioa, genero-dinamika... Alderdi askoren baitan dago gazteek nola ekingo dioten eginkizun horri. Hortaz, baliabideak eman beharko dizkiegu, hala nola hezkuntzarekin eta osasunarekin lotutakoak, eta nola ez ugalketa-osasunarekin lotutakoak. Bestela, ezin sentituko dira gai, eta ezin izango dute ardurarik hartu, ez laguntzarik eman; edo arrakasta handirik gabe, behintzat.

## Klima-aldaketa:

*«Klima-sistema berotzen ari da, zalantzarik gabe. Dagoeneko gauza nabaria da hori, ikusita aireko nahiz ozeanoetako temperaturaren batez bestekoa igo egin dela munduan, elurrak eta izotzak urtzen ari direla bazter guztietan, eta batez besteko itsas maila ere igo egin dela».*<sup>1</sup>

Gure klima aldatzen ari da, mantso baina etengabe. Kontinente guztietan eta ozeano gehienetan aldaketak gertatu dira natura-sistemetan: itsasoko nahiz ur gezako sistema biologikoetan aldaketak izan dira, udaberriko prozesuak aurreratu egin dira, izotzez estalitako eremuak murriztu, eta aintziretako nahiz ibaie-tako tenperatura igo, besteak beste. Gertakari horiek guztiak klima aldatzen ari izatearen ondorio dira, alde batera, baina aldi berean, geroan gerta litekeenaren seinale ere bai.

Faktore askok eragiten dute klima aldatzea, baina giza jatorrikoen artean berotegi-efektuko gasak isurtzea da faktore nagusia, ezberrik gabe. Teknologiari eta industrializazioari esker, aberas-tasuna sortzeko eta osasuna hobetzeko bitarteko iraultzaileak lortu ditugu; baina gure bizimoduak,

produkzio- eta kontsumo-eredu ez-iraunkorretan oinarrituta dagoen honek, berotegi-efektuko askoz gas gehiago isurtzea ere eragin zuen, besteak beste: 1970etik 1994ra bitartean, % 70 inguru handitu zen atmosferara isuritako gasen kanti-tatea, eta gehitze handiena epe horretako azken hamar urteetan izan zen, gainera. XXI. mendean berotegi-efektuko gasen isuria murriztea lortu ezean, oso litekeena da klima-aldaketaren ondo-rioak geroan askoz bortitzagoak izatea: orain arte izandakoak baino gogorragoak, eta gaur egun aurreikusten dena baino latzagoak. Epe luzera begira, eta isurpenak murrizten ez badira, litekeena da klima-aldaketa bera gizakiok nahiz naturak hura arintzeko dugun gaitasuna baino handiagoa izatea.<sup>2</sup>

## Gazteak mugan:

Uholdeak, nekazaritza-ekoizpena murriztea, osasun-arazoak... Aurtengo *Munduko popu-lazioaren egoerari buruzko txosteneko Gazteei buruzko gehigarri* honetan ezagutuko ditugun zazpi gazteek zoritxarrez ondo dakite halakoen berri, inoiz bizi izatea egokitu zaielako batzuek,

eta halako egoeran murgilduta bizi direlako besteak. Klima-aldaketaren ondorioak orokor bihurtuko direnean, egoera horiek eta beste hainbat orain baino maizago eta bortitzago gertatuko dira ziur asko. Batzuek esango dute argitalpen honetako gazteek bizi izandako gertakariak klima-aldaketaren seinale goiztiarrak direla argi eta garbi, eta beste batzuek, berriz, ondorio hori ateratzea ezinezkoa dela erabat. Kontu bat behintzat guztiz egia da. Zazpi gazte horien istorioak geroan milioika gazte izango duten bizimoduaren adibide dira, baldin eta neurriak hartzen ez baditugu, noski, klima-aldaketara moldatzeko, hura arintzeko eta karbono-isuriak murrizteko.

Pobreziak zaugarritasuna dakar: klima-aldaketari dagokionez zaugarri izatea, eta larrialdiak gertatzen direnean nahiz bizi-baldin-tzetan aldaketa iraunkorrak jazotzen direnean haiek sorrarazitako egoeretara moldatzeko eta haiek eragindako ondorioak arintzeko gaitasun eskasa izatea. Behartsuenek askoz oztopo handiagoak dituzte ura eta elikagaiak lortzeko, eta berdin bizibideak, azpiegiturak, etxebizitza,

osasan-zerbitzuak eta bestelakoak eskuratzeko. Hortaz, ondasun horiek eskuratzeko moduak aldatu edo murriztuz gero –eta horixe gertatuko da, antza, klima-aldaketaren ondorioz–, behartsuenek pairatuko dute gehien, behartsueneen bizimoduan izango dira proportzioan aldaketarik handienak. Gainera, klima-aldaketak itxuraz ondoriorik bortitzenak izango dituen eskualdeetan, hain zuzen ere, behartsuenak bizi dira maiz.

Klima-aldaketarekiko zaurgarri izate hori genero- eta adin-kontua ere bada: munduan behartsu direnen bi heren eta nekazarien % 70 inguru emakumezkoa da; hortaz, landa-eremu askotan, arazozen zatirik okerrena emakumezkoek pairatu beharko dute.<sup>3</sup> Munduan 1.500 milioi lagunetik gora gazteak dira (10 urtetik 24 urtera bitartekoak), eta horietatik % 70 garapen bidean diren herrialdeetan bizi da. Beraz, gazteak dira –eta batik bat, emakumezkoak– klima-aldaketak ustez eragingo dituen ondorioekiko zaurgarrienak.

Gaur egungo gazteak klima-aldaketaren mugan daude. Gobernuak, sektore pribatuak eta gizarte zibilak gaur egun zer egingo duten, gazteek halako edo bestelako etorkizuna izango dute,

eta datorren horretarako ere ondo ala eskas prestatuta egongo dira. Gaur egungo gazte asko eta asko klima-aldaketak ondorioz gogorrenak izango dituen leku horietan bizi dira, eta premiazkoa da, hortaz, gazte horien gaitasunak geroan izango dituzten erroka horiei aurre egiteko bidean jartzea. Eta horretan, noski, gazteen bizitza nahiz aukerak osotasunean hartu behar dira kontuan.

Klima-aldaketa gertatzen ari den une honetan, hirietarako joera da nagusi munduan. 2008an, landa-eremuetan baino jende gehiago bizi zen hiri-eremuetan, eta hirietan bizi diren asko gazteak dira.<sup>4</sup> Hori arazo da, baina aukera ere bai, hiri-eremuek berotegi-efektuko gas ugari isurtzen baitute, baina aukera eman ere bai hondakinen manipulaziorako eta garraiorako modu ez hain kaltegarriak antolatzeke, besteak beste.<sup>5</sup> Hirietan bizi diren gazteek ere antzeko dualismo bat dute ezaugarri: gurasoek baino heziketa-maila hobea dute, baina azkenean auzo eskasetan bizi behar izateko arrisku handiagoa ere bai.<sup>6</sup> Horrenbestez, hirietako gazteak hiriek ingurumenaren aldetik izan

dezaketean on guztia ateratzeko gai izango badira, adi egon beharko dugu, haien bizimoduak hobe daitezen.

Egindako kalkuluen arabera, hurrengo hamarkadan 1.200 milioi gazte gehituko zaizkio biztanleria aktiboari. Bestalde, munduko langabeen % 40tik gora gaztea da.<sup>7</sup> Eta zer dakar lanik ez izateak? Bada, besteak beste, pobrezian amaitzeko arriskua, eta alde horretatik, klima-aldaketaren ondorioei aurre egiteko eta haietara moldatzeko behar diren gaitasunez eta bitartekoez jabetzeko aukera gutxiago izatea. Gazteek moldatzeko gero eta gaitasun gutxiago izango dute, baldin eta osasunarekin lotutako alderdiei behar bezala heltzen ez bazaie (ugalketa-osasunarekin lotutakoak barne). Aukerarik nahiz gaitasunik ezak eta klima-aldaketaren ondorioen eraginpean egoteak, biak batera, migratzera eta jaioterria uztera bultzatzen ditu gazteak.

Gazteek gaitasuna baldin badute erabakitzeke noiz eta nola izan seme-alabak, bitartekoak baldin badauzkate GIBetik babesteko eta osasuntsu jarraitzeko, eta aukerak baldin badituzte etxebizitza bat, bizibideak eta ura nahiz oinarritzko beste

ondasunak lortzeko, orduan aukera izango dute klima-aldaketak izango dituen ondorioetarako hobeto prestatuta egoteko. Hori hala balitz, nahi gabeko haurduntzak, sexu bidez kutsatutako infekzioak nahiz GIBa bera bakanagoak lirateke, eta, hortaz, arazo horiek ez lirateke izango oztopo –edo ez, behintzat, oraingo neurrian– gazteak klima-aldaketara moldatzeko eta hura arintzeko gai bihur daitezten. Alderantziz, berriz, gazteen ugalketa-osasunarekin lotutako gaiei aurre egitea lortzen ez badugu, nekezagoa izango da eginkizuna, edo arrisku hori hor da, behintzat.

### **Teknologia berriak, irtenbide berriak:**

Klima-aldaketa dela eta, gaur egungo gazteek gauzak beste modu batera egin beharko dituzte: aurreko belaunaldikoen moduez bestela. Jakina, gizakiaren historian belaunaldi batetik hurrengora beti izan da halako aurrera egite bat, garatze bat, aldaketak gertatzearekin batera bizimoduak halako bilakaera bat izatea. Hori egia da. Baina desberdintasun bat ere bada. Klima-aldaketaren ondorioak direla medio,

gaur egungo gazteen belaunaldiak ezin izango du gurasoen nahiz aitona-amonen bizimodua izan, beste faktore batzuk baitaude orain tartean, eta horietako batzuek bizitza izugarri zaildu baitezakete, gainera. Lehen ez bezala, teknologia eta irtenbide berriak garatzeko arrazoi nagusia orain ez da izango aberastasuna eta ongizatea areagotu beharra. Gaurko gazteek giza jardue- ra ugari egiten jarraitu nahi badute (hala nola nekazaritza eta garraioa), asmakari eta metodo berriak asmatu beharko dituzte, ezinbestean.

Klima-aldaketak antza izango dituen ondorioen eraginez, gazte askok migratu egin beharko dute; baina egia da, bestalde, gizakiak historian zehar beti jo izan duela migrazioa, aldaketetara moldatzeko estrategia moduan. Aldaketa batzuk –migrazioa, adibidez– ziur gertatuko dira; baina aldaketa horiei zer-nolako erantzuna emango diegun, halakoak izango dira emaitzak.

Azken hamarkadetako ekimen-mota ugaritan, beste bizimodu batzuen bila aritu da jendea: berotegi-efektuko gas gutxiago isurtzeko, hain toxikoa ez izateko, Lurrarekin harmonia

handiagokoa izateko... Askok egin da aurrera, ia alderdi guztietan. Eta hurrena egin beharreko urratsa ere garbi dago: asmakari arrakastatsu horiek ahalik eta jende gehienak izan ditzan lortzea –batez ere, gazteek–, eta aldi berean, gazteak asmakari horiek abian jartzeko prozesuan sar daitezten bermatzea, kar hori orain eta gero bizirik gorde dezaten.

Argitalpen honetako gazteetako batzuk horrelako jardueretan buru-belarri sartuta daude, eta haien bidez garbi ikusiko dugu mundu osoko gazteek zein gogo bizia duten klima-aldaketara moldatu eta haren ondorioak arindu behar horretan beren ekarpenak egiteko. Gazteak mundu honetako ongizatearekin arduratuta daude, bistan da. Baina haien nahiei ere erantzun egin behar zaie, gaitasunak areagotzeko aukerak eman. Klima-aldaketara moldatzeko eta haren ondorioak arintzeko egindako ahaleginen onuradun dira gazteak, baina hori ez da nahikoa: erantzunak sortzeko eta abian jartzeko prozesuan murgiltzeko eta zeregin aktiboa izateko aukera eman behar diegu, erantzunak ingurumenaren aldetik iraunkorrak izango badira.



# Marjorie

MASKOR-ARRANTZALE FILIPINARRA:  
UR EPELETAN

**E**spazioak harritu zuen gehien: Zaragoza uhartean, dena ikaragarri handia zen, zeruz eta argiz betea, zuhaitzez josia. Bizitzako lehenbiziko bost urteak Cebuko auzo eskas batean eman zituen Marjoriek: Cebu uharteko hiriburuan, Filipinetako hegoaldean. Gelatxo ilun bat zuen bizileku, eta hartako leiho bakarra, telebista. Han jaioa zen aita, eta hilabete batzuk lehentxeago iritsia ama, uharte hartako bizimodua itxiegia-edo gertatu eta jaio-terria atzean utzita. Baina hiriko bizimodua ez zen hobea: aitak adreilu hutsen fabrika batean egiten zuen lan, ahal zuenean, eta amak, egokitzen zitzaion edozertan (altzari-denda batean, jatetxe txiki merke batean...). Baina irabazitako dirua ez zen nahikoa. Hiria garestiegia zen, dena ordaindu behar baitzuten: ura, jatekoa, argindarra, alokairua... Uhartean oso bestela izango zen; aukera izango zuten txabola bat egiteko, artoa eta manioka eta bananak hazteko, eta batik bat, arrantza egiteko: itsasoa hurbil izanda, beti izango zuten nahikoa jateko.

Hala, 1996an bizilekuz aldatu ziren. Hil batzuk geroago, amak galdetu zionean ea hirira

itzuli nahiko lukeen, Marjoriek irmo erantzun zuen: ez, inolaz ere ez. Hango bizimodua oso atsegin zuen. Gustura ibiltzen zen egun osoan alde batetik bestera, lehengusuekin jolasean. Tarteka iseka egiten zioten, bai, ez omen zekien-eta ondo igerian, neska-mutiko haiek beti ibili izan baitziren ur garden distiratsu haietan jolasean; baina halakoetan ere gustura ibiltzen zen, eta are gusturago itsasbeheraren zain egon eta lehengusuek Marjorieri irakatsi eta elkarrekin barre egiten zutenean.

Zaragoza uhartea eta Ceburen hegoaldeko kostaldea kilometro bat itsaso eta koralek bereizten ditu, eta mendixka hura osatzen duten 170 hektareetan harriak dira nagusi, eta zurezko etxeak, larre bakanak, bugainbilea ikusgarriak. Uharteko 300 familiek dagoeneko lortu dute lurralde hura otzantzea, eta ederki hazten dituzte baratzeak landareak, txerriak, oiloak... Jarduera nagusia beti izan da arrantza, hala ere: sardinak, *dangitak*, atunak, berdelak, txibiai eta beste hamaika arrain ekartzen zituzten gizonezkoek goizero edo arratsaldero, eta uraz haraindiko herrira eramaten zituzten gero emakumezkoek saltzera, Badiango azokara.

Uhartean emakumezko gehienek dituzte sei seme-alabatik gora, eta Marjoriek ere laster izan zituen anai-arrebak. Lehen hezkuntzako eskolan sartu, eta beste haur guztiak bezala, aitari arrantzan laguntzen hasi zen. Alde banatan haga moduko bat duten kanoa estu horietako batetik sarea botatzen zuten aitak eta aitonak; gero, aita uretan murgiltzen zen, arrainak sarerantz bultzatzen; eta bertakoek *banca* deritzoten kanoa horretatik bertatik, sarea jasotzen laguntzen zien Marjoriek. Baina hura jolasa zen, lana baino areago: arrantza gizonezkoen kontua izan zen beti.

Hura ere gero eta nekezagoa bihurtzen hasi zen, baina. Gero eta arrantzale gehiago zegoen, denak ere zerbait harrapatu nahian. Gainera, adinekoenak ohartu zirenez, ura lehen baino beroago zegoen, eta arrainen algarik gogokoenak, hortaz, ihartzen ari ziren. Uhartean inguruko uretan, beraz, arrain gutxiagorentzako janaria zegoen. Adituen esanetan, ozeanoetako uren tenperatura igotzea da klima-aldaketaren ondorio erabakigarrienetako bat. Lurraren berotzeaz ezer entzun aurretik, alabaina, Zaragozako arrantzaleek bazekiten

zerbait gertatzen ari zela. Diruak lehen baino are gutxiagorako ematen zuen: familia askok egunean hiru aldiz jateari utzi zion, eta umeei laguntza ere eskatu behar izan zieten batzuek.

*Egun batean, 13 urte nituela, amak eskaera bat egin zidan: mesedez has nendila arrantzan serioago, lan bat balitz bezala.*

“‘Emakume-lana’ deritzoten hori ez dut gogoko. Soldaduak nola trebatzen dituzten: horixe gustatzen zait, eta horretarako gai banaizela uste dut.”

*Nola sentitu zinen?*

*Pozik, banekien-eta garai latzak zirela haiek guretzat eta nik lagun niezaiekeela, arrain gehiago harrapatzen eta. Arazoa urtebete geroago etorri zen; ama hurbildu eta zera esan zidan: gauzek okerrera egin zutela eta eskola utzi beharko nuela, hartara lan gehiago egin ahal izango nuelako eta ikasketetako gastuak aurreztuko genituelako.*

Marjorieren eskola hura publikoa da, eta ez dute matrikularik kobratzen. Ikasketetako gastuez ari denean, beraz, beste zerbaitez dihardu: arkatzez, koadernoek, lehengusuek utzi ezin izan zioten libururen batez... Bi urtean, Marjorie eta ama

egunero irten izan ziren arrantzara *banca* batean, eta aita eta anaia gazteago bat beste batean. Lehengo gauza bera edo gutxiago lortzeko, ahalegin handiagoa egin behar zuten orain.

*Nork arrantzatzen zuen gehien, amak eta biok ala aitak eta anaiak?*

*Beraiek, sakonera handiagoko lekuetara joaten ziren eta.*

*Eta zuek zergatik ez zineten halakoetara joaten?*

*Leku sakonetan sarea oso astuna bihurtzen delako. Halakoak gizonezkoentzat dira.*

Denbora baten buruan, ama beste sei seme-alabak zaintzen etxean geratzeko adina arrantzatzen zuen Marjoriek. Egunez, itsas maskorrek hartzen jarduten zuen. Lehen, gauzak belztu aurretik, bertakoek norberarentzat biltzen zituzten; baina azken garaian diru-sarrereren parte handi bat ziren. Arbasoek mende luzez hartu izan dituzten bezalaxe biltzen ditu Marjoriek itsas maskorrek; alde bakarra dago: Marjoriek betaurrekoak erabiltzen ditu koraletan ezkutuan edo hondarretan sartuta egon ohi diren animaliatxoek bila kostaldeko uretan sartzen denean. Soka bat ere jartzen du gerrian, beste muturra bere *banca*

txikiko brankara lotuta. Bost orduan grinaz lan eginez gero, behin eta berriz eta berriz murgilduz, Filipinetako 50 peso inguru irabaz ditzake, gauzak ondo ateraz gero: Estatu Batuetako dolar bat edo.

*Uretan tarteka ez al duzu beldurrik?*

*Batzuetan bai. Ura garbi ez dagoenean, marrazorik edo aingirarik ez ote dagoen pentsatzen hasten naiz.*

*Marrazoak al daude?*

*Bai.*

*Eta jendea hiltzen dute?*

*Kontu asko entzuten da.*

Uretan hainbeste denbora eman arren, Marjoriek ezin ahantz zezakeen eskola. Lehengusuek dagoeneko bukatu zuten, eta Marjorieri iruditzen zitzaion berak ez zuela sekula bukatuko, azken aukera galdua zuela.

«Eskolara joateko gogo bizia nuen, bukatu ondoren gurasoei lagundu ahal izango nien-eta anai-arrebak eskolara bidaltzen» esan du Marjoriek, eta bat-batean, disimulatzen saiatu arren, malko batzuk ageri zaizkio masailetan behera.

Iaz amarekin serio hitz egin zuen Marjoriek, eta hauxe agindu zion: berriro ikasten hasten uzten baldin bazion ikasi eta lana egingo zituela, biak, eta lehen baino lan gehixeago ere bai, gainera, eskolako gastuak ordaintzeko. Amak baietz esan zion. Maila oso bat eginda dauka jada, eta eskolako azken-aurreko maila hastekotan da.

*Eskola bukatzeko kontu horrekin zeharo gogotsu nabil. Berez duela bi urte bukatu behar nuen, eta orain beldurrak nago ez ote naizen hori lortzeko gai izango.*

Marjoriek lan handia du. Arrain txikiak iristen direnean, gauze irteten da txalupa handiago batean, hartan baizik ezin baititzake sar horrelako arrainak harrapatzeko behar diren sare handiak. Han, Marjorie enplegatu bat da: beste guztiakin banatu behar du dirua, eta noski, besteen erritmo berean lan egin. Baina arrain horiek topatzea zailagoa da azken urte hauetan: lehen, udan agertzen ziren, uda lehorra eta beroa zenean; baina orain, udan ere euria egiten du, eta arrain txikiak itsaso zabalera ihes egiten dute. «Klima-aldaketak ekarritako beste arazo bat» esan du txalupako kapitain eta Marjorien izeba Isyangek. Eta beste oztupo batzuk ere badira: lehen, euri-sasoia iritsitakoan aldatzen zuten bertakoek artoa, eta orain, euria noiz izango den ez dakitenez, bizpahiru egunean euria izan

dutela ikusitakoan aldatzen dute, baina ez dago asmatzerik, bizpahiru egun horien ondoren batzuetan atertu egiten baitu, eta landareak, orduan, hil egiten dira. Arrazoi berberetatik, itsasoko gatza lehortezi ere utzi egin behar izan diote, eta beste baliabide bat zuten hura: gatza lehortzen ari denean bustiz gero, hondatu egiten da. Uhartekoen diru-sarrerak bazter guztietatik murrizten eta murrizten ari dira.

Gauzak horrela, maiz askotan Marjorie bakarrik irteten da *banca* hartuta arrain edo itsas maskor bila. Eta goizero, zazpitan, bigarren hezkuntzako eskolara joaten da Badianera, arraunean. Gau osoa arrantzan ematen duenetan, bere gauzen bila etxera joan eta azkar batean abiatzeko baizik ez du astia; halakoetan, dena prest uzten du, denborarik ez galtzeko.

Besteetan lehenago itzultzen da, goizeko ordu batean edo, eta lo pixka bat egiteko tartea izaten du. Dena ondo antolatzen saiatzen da Marjorie, denbora ahalik ondoena aprobetxatzeko; baina gauza batzuk ezin kontrola ditzake. Egun hartakoa, adibidez: duela hilabete batzuk, bere *banca* ezin izan zuen tifoï baten aurretiko haizeen indarra jasan, eta hondoratu egin zen; Marjorie izugarri beldurtu zen, baina nola edo hala kostaldera iristea lortu zuen igerian; gero, etxera itzuli, arropaz aldatu eta berriro ere eskolaraino egin zuen arraun. Marjoriek benetan du ikasketak bukatzeko nahia.

*Bukatzen ez badut, jendeak usteko du ezer ez dakidala, eta ezin izango dut hirian lanik aurkitu.*



*Hortaz, hirira joan nahi duzu? Ama ere joan zen behin, eta itzuli ere bai gero.*

*Tira, horregatik ikasi behar dut. Hirian lan egin nahi dudalako joan nahi dut hara. Hemen lehen bezainbeste arrain balego, bertan geratuko nintzateke, jendea ondo bizi zen eta. Baina orain, klima-aldaketa dela eta, ezinezkoa da honetatik bizitzea.*

*Zertan ikusten duzu zure burua?*

*Nik soldadu izan nahi dut.*

Marjorien esanetan, txikitatik gustatu izan zaio mutikoek duten askatasuna, eta berak ere bere ametsak betetzeko gai izan nahi du.

*Zergatik izan nahi duzu soldadu?*

*“Emakume-lana” deritzoten hori ez dut gogoko. Soldaduak nola trebatzen dituzten: horixe gustatzen zait, eta horretarako gai banaizela uste dut.*

*Jendea hiltzeko trebatzen dituzte soldaduak, eta batzuetan hil egin behar izaten dute. Soldadu bazina, eta norbait hil beharko bazenu, zer egingo zenuke?*

Marjoriek irribarre egin du, lotsati, zuhur.

Beti saiatzen da inor ez gogaitzen, trabarik ez egiten, ez nabarmentzen:

*Tira, besteak tiro egin baino lehen nik egitea nahi nuke.*

*Ez zinateke errudun sentituko?*

*Ez, batere ez, nik tiro egin ezean pertsona horrek nire kideak hil ditzake eta.*

Marjoriek dioenez, oraingoz ez du mutil-lagunik eduki nahi. Bere burua ez du ikusten umez inguratuta, uharteko ama gehienak bezala. Zaragozako kooperatibako lehendakaria da Rogelio, gizon txiki bat, 12 umeren aita, eta haren esanetan horixe da arbasoen agindua, nahitaez bete beharrekoa. Bestela, arbasoak haserretu egingo dira, omen. Isyangek gogor erantzun dio: «zer dakite arbasoek oraingo bizimodu latzaz? Beste garai bateko ideiak dira horiek!» Marjoriek urrundik entzun du, eta irribarre egin. Oraingoz, ikaskideekin irten baino nahiago du ikasi eta igerian eta arrantzan ibili uharteko mutilekin: «elkarri mezuak bidaltzen eta dantzalekuetan ematen dute denbora, eta ni ez naiz horrelakoa». Kuboa salbuespena da: Rubiken kuboa boladan jarri da azken urtean Filipinetan; Badiango bigarren hezkuntzako eskolak lehiaketa bat ere antolatu zuen azkenean. Marjoriek ere oso gogoko zuen erronka, baina

kuboa erosteko 500 pesoak ez zeuzkanez (10 dolar inguru), antzeko beste batekin etsi behar izan zuen, hura askoz merkeagoa zen eta. Kubo hura hain zen gogorra, alabaina, benetan zaila baitzen hari birak ematea; eman zion olioak, eman zion xanpua eta ahal zuen guztia, baina alferrik, ordea. Eskolara ordua baino lehentxeago joaten hasi zen, orduan, Rubiken benetako kubo bat bazeukan neska aberats bati tarte baterako eskatzeko. Eta lehiaketaren eguna iritsi zen:

*Sekula ez dut ahaztuko egun hura: irabazi egin nuen! Inork ez zuen uste irabaziko nuenik; neuk ere ez. 5 peso irabazi nituen, eta hain nengoen pozik! Dirua gordeta daukat, gero zerbaiten premia sortzen bazait edo zerbait erosi nahi badut ere.*

Bere buruari buruzko beste uste bat izan zuen arratsalde hartan Marjoriek: agian bai izango zen gai ikasketak amaitzeko, eta agian baita titulu bat lortzeko ere, eta gero soldadu izateko, edo amak nahi duen bezala, andereño izateko eta hirira joateko. Uhartearen mira egingo omen zaio, eta familiarena, itsasoarena, espazio horiena. Hala dio berak. Eta nahikoa arrantza balego bertan geratuko litzatekeela. Baina denen esanetan egoerak ez omen du hobera egingo, okerrera baizik, eta ea zer egin dezakeen berak, hain txikia izanik, halako gauza handi baten aurrean.

## ARRANTZA ETA AKUIKULTURA: URETAN JARDUTEA

Mundu osoko ur gezatoka nahiz itsasoko elikadura-sareak dagoeneko ari dira aldatzen, klima-aldaketaren eraginez. Oraindik ezin jakin daiteke epe luzera zer-nolako ondorioak izango dituen klima-aldaketak arrantzan eta akuikulturan, baina espero izatekoa da ekosistemen baitan produktibitatea aldatu egingo dela. Ur epeletan arrainen kopurua txikitu egingo da; hotzetan, handitu. Arrantza-industriak berak klima-aldaketa gerta dadin laguntzen du, gutxi, baina nahikoa: egindako kalkuluen arabera, eta harrapaketa-arrantzari dagokionez, erabiltzen den milioi bat tona erregeraiko 3 teragramo karbono dioxido (CO<sub>2</sub>) isurtzen da.<sup>1</sup>

Ekosistemetan produktibitatea gutxitu egingo dela jakinda ere, gutxitze horretara moldatzeko gaitasun gutxiago dute, oro har, behartsuenek. Eskualderik behartsuenetako arrantzaleentzat –eta batik bat haiei gutxituko zaie produktibitatea–, arrain gutxiago egotea zailtasun gehiago edukitzea izango da. Klima-aldaketak ustez izango dituen ondorioak benetan gertatzen badira, arrantzaleek askoz egoera meteorologiko gogorra goetan jardun beharko dute, kostaldetik urrunago ere bai, eta giza baliabide gehiago behar izango da, gainera, arrantzan egin nahiko bada. Behar beste arrantza egiteko, orain baino lanordu gehiago beharko dira, eta orain baino erregai gehiago ere bai.

Arrantza ekonomiaren funtsezko parte den eremuetan, jende askorengan eragingo du klima-aldaketak. Mekong Behereko eremuan, esate baterako, biztanleen bi herenak –60 milioi lagun– arrantza-industrian edo harekin lotutako sektoreetan aritzen dira. Haien lana eta bizimoduak aldatu egingo dira Mekongen inguruan, Mekong ibaia bera aldatu egingo baita, itxuraz, prezipitazio-kantitatea aldatu, urteaz gertatu eta itsas maila igo egingo denez

gero. Zehatz-mehatz zer gertatuko den kalkulatzeko zaila da, jakina; baina itsas maila 20 cm igoko balitz, adibidez, eta ereduak kontuan hartuz, betiere, Mekong Beherearen deltan bizi diren espezieetan sekulako aldaketak gertatuko lirateke.<sup>2</sup>

Espezieetan aldaketak gertatzeak ez du esan nahi arrantzatzeko moduan izango den arrain-kopurua murriztu egingo denik, noski; baina dibertsitate biologikoa galtzeak giza osasunean ondorioak izan ditzake, eta hori bada kezka garrantzirik. Zenbait ikerlanen arabera, herrialde tropikaletan den espezie-dibertsitateak arindu egiten ditu gizakioi mehatxu zaizkigun gaixotasun tropikalak. Hortaz, dibertsitate biologikoa galtzeak gaixotasun tropikalak areago hedatzeko arriskua dakar. Askoren esanetan, gaixotasun horien ondorio dira herrialde tropikaletako arazo ekonomiko gehienak.<sup>3</sup> Ankilostomiasia da gaixotasun horietako bat, askoren ustez aintzat hartzen ez den gaixotasun tropikal bat: anemia eragiten du haurrengan nahiz ama izan berriengan, eta ahalmen urritasunak sortzeko arriskua du, gainera.<sup>4</sup>

Marjorie bezala, garapen bidean diren herrialdeetako neska asko aritzen da nekazaritza-lanetan eta etxean laguntzeko bestelakoetan, hala nola erregera lortzen eta ur-garraioan, eskolan egon beharrean. Nekazaritza-sektore informalean jarduten duten familia askok eta askok haurrak eskolatik atera behar izaten dituzte, ezinbestean, soroan aritu daitezen. Azpimarratu beharrekoa da, nolahi ere, garapen bidean diren herrialdeetan haurrek etxeko ekoizpenari egiten dioten ekarpena ez dela izaten batere esanguratsua, familia pobreziatik ateratzeko ahalegin horretan, haurrek ez baitute ez nahikoa eskarmentu ez nahikoa trebezia. Gainera, nekazaritzako langile moduan

helduak baino ahulagoak dira haurrak. Hiru sektore arriskutsuenetako bat da nekazaritzakoa, kontuan hartuz bai lanarekin lotutako zenbat istripu eta heriotza gertatzen diren, bai zenbat lan-gaixotasun eta osasun-arazo izaten diren.<sup>5</sup> Hego-ekialdeko Asian, familia behartsu asko eskala txikiko arrantzatik eta nekazaritza bizi dira ia erabat, eta klima-aldaketaren ondorioak agerian jartzen hasi diren heinean, ikusten hasi dira, halaber, zer arriskuren eraginpean dagoen beraien egoera, lehendik ere aski kolokakoa, aski badaezpadakoa.

Arrantzan dihardutenetatik asko emakumezkoak eta gazteak direnez, haiek lanerako duten gaitasuna hobetzea eta eskala txikiko arrantzan jarraitzeko aukera izango dutela bermatzea funtsezkoa da, klima-aldaketari begira. Ezinbestekoa da, halaber, arrantzale-familietako haurrei eta gazteei –eta batik bat, neska nerabeei– heziketa jasotzeko aukera emango dieten ekimenak sortzea. Heziketarik gabeko neska nerabeek, eta lehen hezkuntza baizik jaso ez dutenek berdin, askoz arrisku handiagoa dute nahi gabe haurdun gelditzeko edo haurduntza ez-segurua izateko, bizibiderik ez izateko eta nor bere buruaren jabe egiteko aukerarik ez izateko.<sup>6</sup>



# Mariama

ZEREAL-BANKU BATEKO KIDE NIGERTARRA:  
ERRESPETUA LORTU ETA JATEKOA BERMATZEA

**M**ariamak hiru seme-alaba ditu, eta senar bat, senide-mordoa, lastozko teilatua eta adobezko hormak dituen txabola bat, oilo batzuk, bost soineko, koloretako zenbait zapi, motrailu bat, aitzur bat, dozena bat plater eta katilu, zenbait koilara, lau lapiko, ura hartzeko bidoi batzuk, lau lanpara txiki, hiru eskumuturreko eta lepoko polit bat. Mariamak badaki 1983an jaio zela, baina zer hilabete eta egunetan, ez, eta sekula ez zuen uste izan hori jakin beharrekoa zenik.

Munduko herrialderik behartsuenetako bat da Niger, ikaragarri herrialde handia, basamortuz josia. 15 milioi biztanle dira bertan –ehuneko 83 nekazariak–, eta planetako ernalkortasun-tasa altuena dute: ama bakoitzeko 7,7 haur. Mariama Dokimanan jaio zen, Nigerreko hiri-buru Niameitik 60 kilometrora dagoen herri batean, ez argindarrik ez iturriko urik ez duten batean, eta aitak bere hiruzpalau hektareako lurrak lantzen zituen. Zazpi anai-arrebetan zaharrena da Mariama, eta hortaz, bazeukan beti norekin jolastu etxean edo ibaiertzean. Sei urte zituela, amari etxeko lanetan laguntzen hasi zen: janaria prestatzen, etxea-eta garbitzen,

putzutik ura eta menditik egurra ekartzen...

Eta amaren laboreak zaintzen ere bai; maiz askotan, izan ere, emakumezkoek *gombo* deritzon gozagarria hazten dute beren kasa, Nigerren jakiak prestatzeko oso erabilia.

Gurasoek sekula ez zuten eskolara bidali. Anai-arrebak bai joan ziren, baina Mariama ez, eta damu zaio orain. Eskolara joan izan balitz aukera gehiago izango omen lituzke orain, hala uste du berak; auzoko batzuei horixe gertatu zaie, hain zuzen: andereño egin zirenez gero, orain badute soldata, eta ez dute eguna artatxikia ehotzen eman behar. Hamar urte zituela, hala ere, ama eta amona Korana irakasten hasi zitzaizkion; hala, letrak bereizten ikasi zuen Mariamak, eta denbora baten buruan, hots haiek gogoratzeko eta esateko gai ere izan zen, nahiz eta hots haien elkarketaz osatutako esaldi haiek ulertu ez, arabieraz baitzeuden. Hura musika errezzitatzea zen, nolabait, eta esan ziotenez, musika hark Jaunak esana abesten zuen. Gerora, apurka-apurka, gauero, herriko Koran-eskolan, olio-lanparen argitan, *marabua* –erlijio-jakintsua– errepikatzen zuenaren esanahia azalduz joan zitzaion.

*Zer egitea gustatzen zitzaizun gehien nerabe zinenean?*

*Gehien gustatzen zitzaidana tripa betetzea zen, eta ondo janztea eta Korana irakurtzea.*

Duela hamar urte, Mariamak 16 zituela, Dalweyeko gizon bat iritsi zen Dokimananara: 30 kilometrora dago herri hura, eta Aboubakar zuen izena gizonak. 25 urtekoa zen, herrian senide batzuk zituen, eta gero jakin zenez, emazte bila zebilen. Behin, gizaseme hura Mariamarengana hurbildu, begietara adi begiratu, eta maite zuela esan zion. Gero, bere herrira itzuli zen, gurasoei emaztea aurkitu zuela esatera.

*Hemen ez dugu denbora askorik ematen berriketan, gorteiatzen eta halakoetan. Mutil batek neska batekin ezkondu nahi badu, eta neskari ondo iruditzen bazaio, ezteiak prestatu ahal izan bezain laster ezkontzen dira.*

Dalweye oso herri behartsua da, lur lehorrean han-hemenka barreiatutako adobezko ehunen bat eraikinez osatua. Mariama beldur zen: orain ez zegoen aitaren ardurapean, senarrarenean baizik, eta handik aurrera han bizi beharko zuen, ia ezezagun zitzaion gizon batekin, berea ez zuen leku batean.

*Ez al zeunden ezkondu behar zenuela-eta pozik?*

*Ez, bai... Tira, nik banekien senarraz fida nintekeela, etxekeoen ezaguna zen eta. Baina gizasemeak beti dira indartsuagoak, eta guk ez dakigu zer gerta daitekeen.*

“Nik ere beste modu batera ikusten dut neure burua, badakidalako etxean halako ekarpen bat egiten dudala.”

Mariama emazte bihurtu zen: etxea eta arropak garbitzen zituen, aleak eho, jakiak prestatu, senarrari artatxiki-bola eramatera mendira joan... Urtebete geroago, lehenbiziko alaba izan zuen, etxean, herriko emaginak lagunduta. Bizimodu normala zeukan, neketsua, eta lasaia ere izango zen, gosea beti arrisku ez balitz.

Mariamaren etxean –eta nigeriar nekazari gehienenean– egunean hiru aldiz jaten dute,

ahal bada: egunsentian, artatxiki-bola bat; eguerdian, berriro ere artatxiki-bola edo, bestela, ur beroz eta artatxiki-irinez egindako zopa; eta gauean, janari landuagoa. Artatxiki-bolak egiteko, luze ehotzen dituzte aleak zurezko motrailu batean, eta gero, esne edo ur pixka batekin nahasi. Eta esan bezala, afaria da otordurik landuena: artatxikiz edo artoz egindako ore moduko bat jaten dute gauean, baobad-hostoz edo *gomboz* edo daukaten beste zerbaitez egindako saltsa batekin nahasita. Hilean bitan edo hirutan arrainen bat gehitzen dute, edo oilasko-erpeak. Eta jaietan nahiz egun berezietan, Mariamak arroz zuria presatzen du, mingarratzez, kalabazaz, tomatez eta kakahuete-pastaz egindako saltsa batekin batera.

*Baina batzuetan ez daukagu hainbeste janari, eta egunean bitan soilik jaten dugu, edo egunean behin. Edo ez daukagu ezer.*

Garairik latzena *soudure* deritzotena da. Ekainean, euriteak hasten direnean, nekazariak artatxikia eta artoa aldatzen dituzte, eta gero, urrian, uztak jaso. Tarte hori –abuztua eta iraila, batik bat– gosete-garaia izaten da, aurreko uzta bukatzeaz egoten baita, eta hurrengo, berriz, iristeke. Mariamak beti bizi izan ditu halako ezaldiak, baina urtez urte egoera okerrera doa.

*Lehen, hiruzpalau hektareako soro batek –soro ertain batek, beraz– 300 artatxiki-bala ere ematen zituen. Orain, berriz, 150 ematen baditu, asko. Eta lehen, bala bakoitzak zazpi edo zortzi tia ematen zituen, eta orain, asko jota ere hiru.*

Nigerren, neurririk erabiliena *tia* da: bi kilo eta erdi aleko katilukada. Eta Mariamaren esanetan, aleak askotan ez dira erabat heltzen, lurrak agortuta daudelako, ongariak oso garesti direlako, eta haiek eramateko gurditxorik ere ez daukatelako. Gainera, zuhaitz gutxi geratzen omen da, bota egin zituztelako egurra lortzeko eta etxeak eta tresnak egiteko –«hemen zurik gabe ezin egin daiteke ezer» dio–, eta landarerik ez dagoenez ur gutxiago omen dago. Baina okerrera, Mariamaren hitzetan, urrik eza da: orain askoz euri gutxiago egiten du, gero eta gutxiago. Mariama klima-aldaketaz ari da, izen hori sekula entzun ez badu ere.

1999an, Mariama Dalweyera iritsi zenean, zenbait emakumek elkarri laguntzeko talde bat sortu zutela jakin zuen. Dokimanan ez zegoen horrelakorik, eta Mariama, hasieran, kanpotarra eta lotsatia izanik, ez zen ausartu taldean sartzen utz ziezaioten eskatzen; baina haien nondik norakoei hurbiletik jarraitu zien. Dalweyeko lehenbiziko emakume-taldea 1997an sortu zen, Care International erakundearen ekimen batetik. 40 emakume inguru ziren hasiera hartan, eta

elkartu eta beren arazoez hitz egiteaz gain, astean 100 frankoko laguntza ematen saiatzen ziren (dolarren 20 zentabo inguru), funts moduko bat sortzeko; gero 5.000 edo 10.000 frankoko kredituak hartzen zituzten hartatik, ekimen xumeren bat saiatzeko: kauserak saltzea, edo kus-kusa, esnea... Bizirauteko lagungarri zitzairen taldea, baina gerora zereal-bankuen berri jakin zutenenez gero, halako bat sortu nahi izan zuten.

Lehorreak Nigerren eragiten duen gose-arriskuari aurre egiteko modu eraginkorrenetako bat zereal-bankuak dira, eta dagoeneko 2.000 edo badaude herrialde osoan. Erraza da: nolabaiteko jarduera baduen emakume-talde batek gordailu bat egiteko konpromisoa hartu behar du, eta orduan, zenbait GKEren bitartez, eta Munduko Elikagai Programa dela tarteko, hasierako kapital bat ematen zaio, aletan: eskuarki, ehunen bat zaku artatxiki, arto eta arroz, ehuna kilokoak.

Bankuak ale-kantitate txikiak saltzen dizkio komunitateari (edo maileguz eman), urteko bi garai funtsezkotan: ekain aldean –lehenbiziko euriak hasi eta haziak ereiteko sasoi iritsia denean–, *soudure* iritsitakoan. Aleak emakumezkoek administratzen dituzte, batzordetan antolatuta, baina erabaki garrantzitsuak hartzeko, batzar nagusiak egiten dituzte. Proiektuak *errentagarria* izan behar du: urtero, jasotako diru-sarrerak erabiliz, bankua *kapitalizatu* egin behar da, hurrengo urterako ale gehiago erosiz. Bankuari esker, emakumeek aleak herrian bertan



beregana ditzakete, azokarik hurbileneraino joateko dozenaka kilometro egin beharrik izan gabe. Prezioak erregulatzea ere lortzen da bankuaren bidez, aleak azokan baino merkeago saltzen baititu beti. Eta, batez ere, gose-arriskua murrizteko baliabide bat da, bai eta gizon-emakumeek beren komunitatean nahiz etxean leku bat izateko baliabide bat ere.

*Orain senarrak beste modu batera ikusten nau. Badaki bankua ez balego askotan jatekorik gabe geratuko ginatkeela, eta bankua gu gara, emakumezkoak. Eta nik ere beste modu batera ikusten dut neure burua, badakidalako etxean halako ekarpen bat egiten dudala.*

2002an, Dalweyeko emakumeek zeukaten guztia batu eta ale-gordailua eraiki zuten. Orain,

harro diote: «geuk bakarrik egin genuen».

*Ez, gizonak ere ibili ginen –esan du komunitateko buruzagiaren ordezkari batek.*

*Zuek lan egin zenuten, bai, baina sosal geuk jarri genituen.*

Eztabaidak aurrera jarraitu du, barre artean, Dalweyeko emakumeen batzarrean. Gaur goizean *hiran* bildu dira –djerma hizkuntzan, «hitzen tokia»n–, mangondopean; ekitaldiko zenbatekoak dituzte aztergai. Lehendakariak aurrezki-libreta erakutsi die: 821.930 franko dauzkate dirutan, eta 153 ale zaku ere bai, ehuna kilokoak.

Mariama ere han dago, zuhaizpean eserita. Duela zazpi urte sartu zen taldean –gordailua egin behar zenean, alegia–, eta orain jarduera

guztietan hartzen du parte: hitzaldietan, eztabaidetan, prestakuntzako nahiz alfabetatzeko ikastaroetan... *Soudure* garaia iristen denean, Mariamak aleak erosten ditu: Dalweyeko emakumeek duela urte batzuk erabaki zuten ordutik aurrera ez zutela alerik maileguz emango, itzultzeak maiz luze atzeratzen zirelako eta horrek arazoak eragiten zituelako.

2005ean, argindarra iritsi zen Dalweyera. Lehen, gau ilun eta isilak ziren herrikoak; orain, berriz, ilundutakoan ez dute zertan lotara joan. Eta errota hobeto dabil, eta batzuek hozkailua ere badaukate, ura hoztu eta gero saltzeko. Bi lanpara txikirekin etxean argi egiteko soilik erabiltzen du Mariamak argindarra; beste tresnarik ez dauka.

Urte hartan, gainera, lehenbiziko semea izan zuen Mariamak, eta lasaitu ederra hartu zuen. Mutilek aitari lagun diezaioke baratzean, eta ezkondukoan ere desberdin dira gauzak, mutilek ez baitute etxetik alde egiten, eta bai, ordea, emaztea ekartzen: orduan, amak errainaren gain uzten ditu etxeko lanak, eta azkenean, atsedean hartzeko garaia iristen da. Semeak lanindarra dira, hortaz, eta erretiratu ahal izateko segurtasuna ere bai. Eta Mariamak bazekien semerik ez zeukaten emakumeei muzin egiten zietela maiz senarrek. Areago: ahal izanez gero, beste emazte bat hartzen dute, gizonetzkoekin inoiz ez baitute uste izaten semerik ez izatearen errudun-edo beraiek izan daitezkeenik.

Mariamaren bizimodua berdina da ia beti. Goizero eguna urratutakoan jaiki, putzura ur bila joan, gosaria prestatu, umeak eskolara bidali, patioko hautsa kendu, artatxikia eho, senideekin berriketan egin, bazkaritarako bola prestatu, senarrari eraman, bere *gombo*-sail txikia zaindu, arropa garbitu, umeak zaindu, afaria prestatu, eta lotara joan. Eta tarteka, eskolako irteerara kus-kusa saltzera joan.

*Ba al daukazu atsedeen-egunik?*

*Ez, zergatik?*

*Galdetzearren.*

*Ez. Gaixo nagoenean, bai; baina bestela, egunero-egunero egiten dut lan.*

*Nahi al zenuke atsedeen-egun bat eduki?*

*Nahi, bai; baina badakit sekula ez dudala halakorik edukiko. Tira, agian umeak handitutakoan, bai; baina hori baino lehen, ez, seguru.*

Mariamaren ustez, umeak irakurtzen eta idazten ikasten badute, eta frantsesaz apurtxo bat bederen ikasten badute, agian handi egingdakoan lanbideren bat izango dute, eta agian, eutsi ere egingo diote.

*Ezagutzen al duzu Niamei?*

*Joan izan naiz, bai, senideak ikustera eta. Izugarri gustatzen zait. Janari goxoa dago, eta ezagun da jendea ondo janda dagoela. Hango jendea ederra da, garbia, azal distiratsua dute, eta arropa polita. Hiriko pobreak hemengo aberatsak baino hobeto daude.*

*Nahiko zenuke han bizi?*

*Bai, jakina!*

*Zergatik ez zara saiatzen?*

*Han bizitzeko sosik ez daukagulako. Diru asko behar da han, dena ordaindu behar da eta: egurra, ura, janaria... Dena saldu egiten da.*

*Eta egun batean mago bat etorriko balitz eta esango balizu nahi duzuna izan zaitzkeela, nahi duzuna egin dezakezula, zer aukeratuko zenuke?*

*Nik dirua eduki nahi dut, behi batzuk erosi eta gizentzeko, ongailuak hazi eta azokan saltzeko, hozkailu bat eduki eta ur hotza saltzeko, negozioak egiten hasteko. Horixe aukeratuko nuke nik. Goseak ez naizela egongo jakitea.*

## LEHORTEA ETA BASAMORTUTZEA

### LUR BEROAGOA LANTZEA

Orain aldizka lehorteak eta bero-boladak izaten dituzten eskualdeetan, ziur asko datorren mendean maizago izango dituzte muturreko egoera meteorologikoak, klima-aldaketaren ondorioz. Gainera, jazo berri diren gertaerak ikusita, adituek uste dute lehorteekiko zaugarritasuna uste baino handiagoa izango dela, bai garapen bidean diren herrialdeetan bai garatuta daudenetan.<sup>1</sup>

Mariama bezalaxe, munduan emakumezko asko oso gaztetan lotu behar izaten dira nekazaritza-landetara. Baina Mariamaren istorioak beste zerbaite ere erakusten digu: egon badaudela moduak jendeari haziak eta elikagaiak bermatzeko, eta, aldi berean, emakumezkoak –gazteak barne– beren buruaren jabe izan daitezen lortzeko. Eta garrantzi handiko kontua da hori; adituen esanetan, izan ere, ezin lortuko da lur lehorrak arrakastaz lantzea, baldin eta gizonetzakoak eta emakumezkoak lan-esparruan bete-betean eta berdintasunez aritzen ez badira.<sup>2</sup>

Lurra lehorragoa izateak landakoei nahiz herri-hirietakoei eragiten die, baina horren ondorioak arintzea nekezagoa gertatuko zaie behartsuei eta lur lehorretan bizi direnei. Nekazaritzak etekin txikiagoak emango ditu, lurra elkorragoa izango delako, ur ezagatik eta uztetako kalteengatik; eta beste mehatxu batzuk ere izango dituzte landatarrek: azienden heriotza-tasa handitu egingo da, eta baso-suteak, areagotu. Hirietan, berriz, ur falta izango da arazo nagusia, baita uraren kutsadura ere; horrek osasun-arazoak ekarriko ditu, eta industriarako nahiz eraikuntzarako nahikoa urik ez izatea ere bai. Bestalde, lehorteak areagotzea eta bero-boladak gertatzea ere espero izatekoa da hirietan, inguruko landa-eremuak baino beroagoak izaten baitira hiriak. Eta azkenik, uraren eta janariaren bidez kutsatzen diren gaixotasunak hedatzeko arriskua ere handitu egingo da.<sup>3</sup>

Lehorteak eta bero-boladak indar handiagokoak eta sarriagoak izateak galera ekonomikoak ekarriko ditu, batetik, baina jendea hiltzea ere bai, bestalde. Gaur egungo lehorte guztiak ez dira klima-aldaketaren ondorio; hori hala da. Baina haren ondorioak aztertzea izugarri lagungarri zaigu ulertzeko zergatik den ezinbestekoa hura arintzea. Mendebaldeko Afrikan, zenbait herri nomadak ez du kokatzea beste aukerarik izan, lehorte luzeek behartuta: ehunka urtean izandako bizimodua erabat aldatu, eta lurra lantzeko eta aziendak zaintzeko moduak ikasi behar izan ditu jendeak nahitaez. Baliteke horrelako aldaketez bestelako aukerarik ez egotea; baina nolana ere, garrantzi handikoa da behinola nomada izandako herri horien gaitasunak sendotzeko ekimenak sortzea, eta beharrezkoa, halaber, ekimen horiek kontuan hartzea zer-nolako ondorioak izan ditzaketen, kulturaren aldetik, aldaketa horiek.

Lehorteak eta bero-boladak indar handiagokoak eta sarriagoak izateak, bestalde, biodibertsitatean eta basamortutze-prozesuan ere ondorio ugari izan ditzake. Basamortutze deritzo lurra andeatu eta zona arido, erdiarido eta azpiheze lehor bihurtzeari (eta ez dagoeneko badauden basamortuak hedatzeari), eta zenbait faktoreren ondorioz gertatzen da. Faktore horietako bat zuhaitzak eta landareak kentzea da (erregai moduan erabiltzeko, edo nekazaritzarako nahiz abeltzaintzarako erabiltzeko, eraikinak egiteko, herri-hiriak hedatzeko...), lurzoruari utsiko dion ezer geratzen ez denez gero; beste bat, abere-taldeek lurra eragiten duten higadura; eta hirugarren bat, nekazaritzaren bidez lurzorua gehiegi ustiatzea.<sup>4</sup>

Faktore horiek guztiak estu lotuta daude pobreziarekin, baita lurra modu iraunkorrean ustiatzeko gaitasun ezarekin ere. Munduan lur lehorretan bizi diren biztanleen % 90 inguru

garapen bidean diren herrialdeetan bizi da. Haizeak eta urak eragindako higadurak larriagotu egiten du prozesua, harez eta hautsez osatutako halako nahaste bat bihurtzen baitu lurra. Eta lehorteek eta bero-boladek hedatu egiten dute prozesua. Gaur egun, planetako lurren % 40 basamortutze-prozesuan erortzeko arriskuan dago.<sup>5</sup>

Basamortutzeak arazo ugari dakartza: elikagai-urritasuna, harea-ekaitzak sortzea, ur-ibilguak aldatzea, eta larriena, segurtasun-arazoak. Basamortutzeak krisialdiak eragin ditzake zenbait eskualdeetan: hain zuzen ere, gosea, istilu politiko nahiz zibilak, migrazioa eta gerra nagusi dituztenetan.<sup>6</sup> Eta genero-kontua ere bada: tradizioz, lur lehorretako nekazaritzan genero-bereizketa izugarria dago, eta emakumezkoek arduraren handia dute janaria bilatzeari eta prestatzeari dagokionez. Hortaz, lehortearen eta basamortutzearen ondorioz elikagaiak lortzea kolokan dagoenean, emakumezkoen estatusa eta bizibideak ere arriskuan jartzen dira. Emakumezkoen estatus sozioekonomikoa ere kontuan hartu behar da, beraz, lehortearen eta basamortutzearen ondorioetara moldatzeari eta haiek arintzeari helduko zaionean.<sup>7</sup> Gainera, komunitateak aldaketak osotasunean onartuko baditu eta haiei utsiko bazaie, botere-dinamika aldatzeko moduko ekimenak sortu behar dira, eta gizon nahiz emakumeak haietan sar daitezen lortu. Mariamaren bizipenak ditugu horren adibide.

*Lehorte hitzak zenbait lehorte-mota adieraz ditzake: lehorte meteorologikoa (batez besteko prezipitazioa baino askoz prezipitazio urriagoa), hidrologikoa (ibaien ur-emari txikia, eta ibai, aintzira nahiz lurpeko uren ur-maila txikia), nekazaritza-lehorte (hezetasun-maila txikiko lurzorua) eta ingurumen-lehorte (aurreko guztien nahastea). Lehorte ororen eragina giza jokabidearen baitan dago: lurra nola erabiltzen den, ur-baliabideak nola ustiatzen diren, ur-iturri jakin batetik zenbat jende bizi den...<sup>8</sup>*



# Messias

AMAZONIAKO KOMUNITATE BATEKO LEHENDAKARIA:  
NEKAZARITZA IRAUNKORREAN AITZINDARIA

**T**xantxa moduan hasi zen kontua: «Zer da bada mutiko hau berritsua; lehendakari izan behar luke. Bai horixe, ez da-eta isiltzen», esaten zuten nagusiek. Baina hasieran olgeta hutsa zen hura denboraren poderioz benetako bihurtzen hasi zen, eta 12 urte baizik ez zituela, Mariaren eta Raimundoren bosgarren seme zen hura, Messias, Sant'Antonio komunitateko lehendakari aukeratu zuten, Urubu uhartean, Boa Vista do Ramos udalerrian, Amazonaseko estatuan, Brasilen.

Planetako natura-erreserba berde handiena da Amazonia: bost milioi eta erdi kilometro koadro ditu, zenbait herrialdetan banatuta (Brasil, Bolivia, Peru, Ekuador, Kolonia eta Guyanak), eta munduko biodibertsitate osorik asko bertan egoteaz gain, CO<sub>2</sub> ugari bixurgatzen da Amazonian, eta hortaz, berotegi-efektua arintzen. Kontinente osoko kliman ere berebiziko eragina du Amazoniak. Baina azken 40 urteotan, baso-sail ugari soildu dituzte soja landatzeko eta aziendak hazteko, eta oihan-zati handi bat suntsitu da: milioi-erdi bat kilometro baino gehiago.

Messias 1984ko abenduaren 5ean jaio zen —«ala 83an izan zen? Ahaztu egin zait»—, lastozko

teilatua zuen etxalde batean, ibaiertzean, eta eskualdeko lur-jabe baten kontura egiten zuen lan aitak. Jende gehiena maizter iritsi berria zen lurralde hartan, Messiasen gurasoak amazoniarrak ziren, bertakoak, guraso indiar eta zurietatik jaiotako mestizo edo *caboclo* lurgabeak. Messias haziz zihoan heinean, anaiak joan egin ziren: nahikoa sosik ez, eta banan-banan, bizimodua ateratzera alde egin behar izan zuten. Marinel jarduten zuten ibaian, eta beti bidaltzen zuten zerbait etxera. Hala, seme bakarra balitz bezala hazi zen Messias. Aitak berekin eramaten zuen lurra lantzerantz, eta beti esaten zion, eskolagabea izanik ere, ez zuela nagusien edo merkatarien mende ibili behar, eta aske izango bazen, behar zuen janaria ekoizteko gai izan behar zuela. Horregatik-edo, gauze batzuetan mendira joaten ziren ehizara, oreinak, armadiloak, pakak eta tapirrak harrapatzerantz —orduan ugari ziren eta—, eta landareei nahiz animaliei buruz zekien guztia irakasten zion aitak. Beste batzuetan, arrantzara joaten ziren arkua eta geziak hartuta —«bai, indiarrak bezala»—, edo sarea edo arpoia hartuta. Eskolan hasi zenerako, Messiasen ikaragarri zekien ibaiak, oihanak eta uzta-kontuez.

Urubu uhartea oso leku bakartua da, eta bertara ezin joan daiteke lehorretik; oso ontzi gutxi iristen da haraino. Argindarrak ez zeukaten, eta jendea egun-argiaren erritmora bizi zen, eta bizi da oraindik. Messiasen sei edo zazpi urte zituela eraman zuten gurasoek hiri batera aurrenekoz, medikuarengana. Messias zur eta lur geratu zen: ordura arte sekula ez zuen ikusi kale asfaltaturik, ez autorik, ez bi solairuko etxerik, ez argirik, ez gauze eta fruituz eta barazki gainezka zeuden azoka haiek bezalakorik.

Auzoko aberatsenek urrundik ekarritako zomorro bitxi hura ere orduan ikusi zuen Messiasen lehenbizikoz: telebista. Herritarrek tresna haren inguruan biltzen ziren, liluratuta, futbola ikusterantz. Bakoitzak zentabo batzuk jarri behar izaten zituen, sorgailurako gasolioa ordaintzeko; dirurik ez zeukanak ere begira zezakeen, baina leihotik. Baina denek egon nahi zuten han, sudurra pantailan itsatsita.

*Sekulakoa izan zen, erabat gauza berria.  
Hori baino lehen, irratia baizik ez zegoen:  
irratia, irratia eta irratia. Entzun, bai,  
entzuten zen; baina ikusi, piperrik ere ez.*

Futbola garrantzi handiko kontua zen haien bizitzan: larunbatero eta igandero, denak kantxa inguruan elkartzen ziren, partida bat jokatu, musika entzun, berriketan jardun eta garagardo batzuk edaten. Messiasak 12 urte zituen garai hartan, eta hizketan ematen zuen tarte hura: nor bere jatekoa ekoitzi behar zuela hiriarren mende ez egoteko, barazkiak-eta etxetik gertuago haz zitzaketela hainbeste ibili behar ez izateko...; halakoak esaten zizkien. Amazonian erreketak- eta basogabetze-sistema erabiltzen dute: horrek CO<sub>2</sub> ugari sortzen du, Lurraren berotzea areagotzen, eta lurzorua bizkorrago elkortzea eragiten. Sistema horren arabera, lur-sail bakoitza bi urtean erabil daiteke, eta gero, hurrengo sei edo zazpi urteetan lugorri utzi behar da; nekazariak, beraz, ezin bil dezakete behar beste. Hain zuzen ere, *munduko birika berde handian*, elikagaien % 80 kanpotik ekarria da.

“...nik esaten diet zaindu egin behar dugula, kontua ez delako soilik gurea, mundu osoarena baizik: mundu osoak behar du Amazonia.”

Auzotarrek adi entzuten zioten Messiasi: hurrengo hauteskundeetan, Messiasak lehengusuetako bat garaitu zuen –uhartean denak dira hurbileko edo urruneko baina senide–, eta komunitateko lehendakari hautatu zuten.

*Lehendakariari dagokio komunitatearen eta agintarien arteko harremana eta komunitatearen funtzionamendua antolatzea, guztion ondarea zaintzea, auzotar guztiak ordaintzen duten begiratzea, zaindariaren eguna antolatzea, garbitasuna bermatzea, maisuen lana kontrolatzea eta auzotarren artean bitarteko izatea. Askok nahiago zuten gauzak ondo egin ni mutil koskor bat izanik atzetik errietan izatearen lotsa pasatzea baino...*

Hasieran Messias beldur zen, gauzak gaizki egingo ote zituen, entzungor egingo ote zioten... Apurka-apurka ikasiz joan zen, alabaina, eta lasaituz ere bai. Garai latzak ziren: nagusiak aita bota zuen, 40 urtean bere kontura aritu ondoren, inolako azalpenik gabe. Raimundok auzitara eraman zuen, baina bitartean, sosik gabe ziren: Messias beste etxalde batzuetan hasi zen lanean, arrantzan egiten zuen, sutan jartzen zen, etsita ere bai.

18 urte zituela, Messiasen neska-laguna haurdun geratu eta lehenbiziko haurra izan zuten; baina Messiasak ez zuen neskarekin batera bizitzen jarri nahi izan. Ordurako, betidanik bizileku izan zuten lur-saila jaso zuen aita kalte-ordain gisa, eta Messias uharteko nekazaritza-eskola teknikoan sartu ahal izan zen. Amazonaseko Nekazaritza Iraunkorreko Institutuko jendea ezagutu zuen han, eta barrualdean proiektu bat hastekotan zirela jakin zuen.

*Nekazaritza iraunkorra begien bistakoa denaren zientzia da: naturari behatzea, hartatik ikasteko nola ekoitzi daitezkeen elikagaiak, natura suntsitu gabe –hala dio Carlos Millerrek, Ali Sharifekin batera 1997an Institutua sortu zuenak, hain zuzen.*

*Esan nahi du gogoan laborantza-sistema jasangarriak izatea, elementu guztiak elkarri lotuta eta elkarri laguntzeko moduan dauden sistemak, hain zuzen, dena baitago lotuta: nekazaritza iraunkorren, kontua ez da lurzorua, zuhaitza, euria, eguzkia, animaliak... baizik eta horien guztien arteko loturak. Beti diogun bezala, ez dago funtzio bakarra duen elementurik: funtzio bat baino gehiago dute denek, eta haiek behar bezala nahasten jakitea da kontua. Helburua Amazonian beste aberastasun-ekuazio bat sortzea da: eskualdea babesteko modua emango duen ekuazio bat, ingurua suntsitzea ez dakarren aberastasun bat.*

Ordura arte, zenbait GKE ekologistatan aritu zen Miller, eta haietan, zenbait eremu babesteko, hustu egiten zituzten:

*Ni deseroso nengoen: lurralde bat salbatzeko bertan bizi zirenak bota behar izatea ezin izan zitezkeen irtenbidea. Nekazaritza iraunkorraren berri jakin nuenean, irtenbide*

*bat izan zitekeela pentsatu nuen. Gizakiak, zerbait landatu nahi duenean, dagoen guztia ateratzen du, eta gero, huts horretan landatzen. Amazonaseko basoak kontrakoa egiten du, oso mantengai urriko lurzorua baita bertakoa, eta hortaz, bere buruaz bizi beharra dauka, basoaren beraren deskonposizioaz. Guk gauza bera egiten dugu orain: ongarri naturalak erabiltzen ditugu, eta landare jakin batzuk nahasi, elkarri hazten lagun diezaioten, ingurumena suntsitu gabe.*

Messiasi gogoa berotu zitzaion: nekazaritza iraunkorraren kontu hura beretarrentzako bide bat izan zitekeen. Millerrek hau esan zion: eskolan jarrai zezala, eta interes hura benetakoa zela erakutsi. Eskola amaitutakoan, 2004ko urrian, Manaoseko Institutura joan zen prestakuntza amaitzera, Boa Vistako udalerrarekin elkarlanean proiektu bat ari ziren-eta prestatzen Urubu uhartean: *Familiako Baserri Etxea* proiektua. Genice izeneko neska gazte eta jatorriz indigena bat zebilen proiektuaren buru. 2006an, Alik eta Carlosek beraiekin elkar zedin eskatu zioten.

Orain, hektarea bateko sail baten erdian erakitako txabola handi bat da proiektua; hektarea bakarrekoa, baina baliabidez josia: ehun landare-aldaeratik gora daukate (artoa, manioka, tipula, azukre-kanabera, arroza, banana, kafea, gaztaina, anana, ahukatea, asaia, pasio-lorea, guaiaba...), landareak hazteko mintegi bat ere bai, eta oilo-

eta galeper-haztegi bat (arrautzak eta ongarrira lortzeko), euri-ura jaso eta iragazteko sistema bat, eguzki-panelak eta ongarrira sortzeko komun bat. Arrainak hazteko urmael bat ere badaukate, eta laster, txerritegi bat egingo dute, eta detrituak metano bihurtu. Proiektuak bere buruari eutsi behar dio, eta batez ere, funtzionamenduaren aldetik eredu izan, komunitatea garatu eta bertakoei ikusarazteko bizi daitezkeela hainbeste energia, denbora eta natura-baliabide galdu gabe.

*Ez da erraza, halako kultura dute-eta: erre, landatu eta arrantzan egin. Esaten diedaneko ekoitz daitezkeela erre gabe, natura suntsitu gabe, batzuek zorotzat hartzen naute, ezjakintzat –dio Messiasak, beti bizileku izan zuen etxaldearen atarian eserita.*

Inguruko komunitateak laguntza publikoetara ohituta daude, ohituegi, eta arazoetako bat horixe da, Messiasen esanetan. Duela hilabete batzuk, adibidez, proiektuak oilategi bat oparitu zion gertuko komunitate bati, animaliaz beteta. Gutxi barru, oilo guztiak saldu zituzten, eta gero, beste batzuk erosteko eskatu.

*Hain dira mendekoak! Atzean bultzaka inor ez badaukate, zerura begira ematen dute eguna, egonean. Saiatzen naiz azaltzen bere kabuz egin behar dituztela gauzak, baina nolnahi ere neuk esaten diet gauzak horrela*



*egiteko. Baina horixe da gure egitekoa hemen: ikusaraztea ez dagoela zertan mendia erre edo sarek arrantzatu. Eta batzuk ari dira hori ulertzen, praktikan jartzen. Gero eta jende gehiagok dagoeneko ez du mendia erretzen, kontu handiagok arrantzatzen du. Aintzira batzuetan orain galarazita dago arrantza. Baratzeak egiten hasi ziren, fruitu-arbolak aldatzen, erleak hazten... Urubu inguruko eskualde hau beste komunitate batzuentzako eredu izatea da helburua, haiek ikustea gure bizimodua hobetu egin dela, eta gero, beren eremuan aplikatzea eta hedatzea.*

Messiasak bero du oraindik ere gogoa, baina badaki eredu horren aurka daudela asko: aberatsak, are lur gehiago eduki nahi dituztelako, are abere gehiago edukitzeko;

eta merkatariak, nekazariak nork bere janaria ekoitziko balute haiei erosiko ez lieketelako. Ea gobernuak laguntzen dion; horretan dabil Messias. Herrikideei ulertarazi nahi die natura zaindu beharra daukatela, dena galdu nahi ez badute: natura zaintzea denen betebeharra dela, amazoniar diren heinean, oihana andeatuz gero denek ordaindu beharko dituztela-eta ondorioak.

*Orain denok badakigu Afrikako herrialde askotan lehorte izugarriak dituztela eta jendea goseak dagoela. Orduan, nik hauxe azaltzen diet: aurreko belaunaldietakoek oraingoetan pentsatu ez zutelako gertatu zaiela hori, ahaztu egin zutelako beren seme-alabek eta bilobek eta birbilobek ere naturaren beharra izango zutela, eta jarraitu egin zutelako basoa suntsitzen; horregatik daudela orain horrela. Gainera, guk hemen daukagun aire garbi hau arnasteko premia du munduak, eta hortaz nik esaten diet zaindu egin behar dugula, kontua ez delako soilik gurea, mundu osoarena baizik: mundu osoak behar du Amazonia.*

*Baina norbait goseak dagoenean, eta jakinda basoa erreta janaria lortuko duela, zaila da italiarren edo txinatarren aireaz arduratzea.*

*Tira, lehen ez ziren arduratzen. Beren baitarako esaten zuten «nik edukitzea da kontua; zer axola niri besteak». Baina orain oso bestelako ikuskera dute gurean, badakitelako hemen egiten ari garen lanaren zati handi bat beste herrialde batzuetako diruaren mende dagoela. Orduan, nik esaten diet besteek guri lagundu egiten digutenez guk ere lagundu egin behar diegula haiei. Denbora osoan norberaren zilborrari begiratzeari utzi behar zaio, eta ulertu, behingoan, basoa erretzen den orotan karbono-mordoa joaten dela atmosferara eta hondatu egiten dela. Horregatik dago klima gero eta zoroago, eta horrela jarraitzera, zertan bukatuko da kontua?*

Messias bere laboreetatik bizi da, eta bere 470 abarasketatik, eta proiektuko soldatetik. Asteburu oro futboleak jokatzen jarraitzen du, eta oraindik ere gorroto ditu hiriak:

*Ezin dut jasan zarata, estresa. Hemen lasai nago, aire garbia dut arnasteko. Jan nahi badut, arrantzara joatea besterik ez dut. Ez daukat itxi beharreko aterik, ez naiz lapurreta egingo didaten beldur. Gauza bakarrerako joaten naiz ni hirira: hona ekartzeko eta niretarrei laguntzeko balio izango zaidan ezagueraren bat lortzera.*

Bitartean, beste haur bat izan zuen lehengo emakume berberarekin, «bere lagunarekin». Han, emakume gehienek ume-mordoa dute, inork ez baitie ematen familia-plangintzaren berri:

*Gurpil zoroa da. Erreketa- eta basogabetze-sistema erabiliz gero, hainbeste umeri jaten eman ahal izateko gero eta baso gehiago soildu behar da, gero eta natura gehiago suntsitu. Orduan, lurrak janaria emateari uzten dio, eta neska-mutiko horiek, hazitakoan, zer jan ere ez daukate. Natura zaintzen laguntzeko, oso baliagarria izango litzateke familia-plangintza egokia egitea.*

Egunotan, Messiasi zinegotzi izateko hautagaitza eskaini diote Langileen Alderdian; orain agintean dagoen alderdian, hain zuzen. Messiasak ez daki zer egin. Berak gizarte-politika egiten omen du, ez politika alderdikaria, eta halaxe jarraitu nahi omen luke, politika alderdikarian gauza itsusi asko omen dago eta: diru zikina, kontu-garbiketak, presioak, ustelkeria... Baina gauzak benetan aldatu nahi baldin baditu, agian alderdiren batean sartu beharko omen du. Eta orain, denbora luzean lehenbizikoz, Messiasak ez daki hurrengo urratsa zein izango den.

## OIHANAK

### HERRI INDIGENEN ETXEA, ARRISKUAN

2000tik 2005era bitartean, munduan urtean galdutako basoen kopurua zazpi milioi hektareatik gorakoa izan zen: munduko baso-azalera osoaren % 0,18, hain zuzen.<sup>1</sup> Baso-soiltzeak mila milioi pertsonari baino gehiagori eragiten dio mundu osoan, eta horietatik gehienak garapen bidean dauden herrialdeetan bizi dira.<sup>2</sup>

Euri-oihanek, bereziki, oxigenoa sortu eta karbonoa atxikitzen dute, eta horrela, gas hori isurtzeak klima-aldaketaren aldetik dituen ondorioak arintzen.<sup>3</sup> Zoritxarrez, euri-oihanak ere galtzeko arriskuan daude, baso-soiltzearen eraginez. Aurreikusitakoaren arabera, baso-soiltzearen eraginez Amazonian urritu egingo dira prezipitazioak, izaten direnen erdia-edo oihanak berak sortzen baitu, zuhaitzen ebapotranspirazioaren bidez. Ehuneko 20 ere urritu daitezke prezipitazioak, eta hala gertatuz gero, lehorraldiak izango dira geroan, eta itsas ur-azaleko temperatura altuagoak, eta oihaneko egituraren aldaketak.<sup>4</sup>

Baso-soiltzeak klima alda dadin laguntzen du, eta klima-aldaketak, berriz, baso-soiltzea bizkorrago gerta dadin. Baso-soiltzearen ondorioz berehalakoan galduko liratekeen basoei eusteko ekimen ugari daude abian, egia; baina klima-aldaketak basoetan epe luzean izango dituen ondorioei dagokienez, gero eta zailagoa ari da bihurtzen horiek galaraztea. Lurreko tenperatura zenbat eta gehiago igo, baso-ekosistemak lekuz aldatzeko gero eta arrisku handiagoa dago: tenperatura altuagoak badira, landareta epelerako nahiz borealerako egokiak diren zona klimatikoak beste leku batzuetan egongo dira. Landare-espezien migrazioari dagokionez, datu bat bederen ziurra da: historian zehar, mende bakoitzean 20 kilometrotik 200era bitartekoa izan da migrazioa. Gaur egun, berriz, oso bestelakoa da kontua: 2100erako, landareta

epelerako nahiz borealerako egokiak diren zona klimatikoek 200 kilometrotik 1.200era bitartean ere egin dezakete iparralderantz, eta horrek esan nahi du zenbait landarek atzean geratzeko arriskua dutela.<sup>5</sup>

Horrelako aldaketak betidanik gertatu izan dira historian zehar Lurrean; baina berotze globalaren ondorioz drastikoki bizkortuta ari dira gertatzen aldaketak, eta beraz, lurzorua nahiz ekosistemak haietara ezin moldatuan dabilta orain, lehen ez bezala.<sup>6</sup> Amazoniako ekialdeko eskualdeetan, tenperaturak gora egingo duela eta, ziur asko izugarri urrituko da lurzoruko ur-kantitatea XXI. mendean erdialdean, eta horren ondorioz, berriz, baso tropikala sabana bihurtuko da, apurka-apurka.<sup>7</sup> Garapen bidean diren herrialdeetan, erronka itzela da klima-aldaketak eremu basogabetuetan eragindako ondorioak arintzea, pobrezia eta instituzioen murrizketak direla tarteko. Herrialde askotan, eragile publiko, pribatu eta gobernuz kanpokoek ez daukate arazoei aurre egiteko baliabide egokirik, eta ondorio kaltegarriko kate etengabe bat sortzeko arriskua du horrek: zenbat eta aurrerago, konpontzen gero eta zailago. Inoiz gutxitan jartzen da abian basoak botatzearen orde bestea aukera batzuei heltzen dietenei pizgarri finantzarioak emateko mekanismorik.

Aldaketa ekologikoak eragiteaz gain, munduko osoko euri-basoetan bizi diren herri indigenetan ere eragin zuzena dute baso-soiltzeak eta klima-aldaketak. Herri indigenek arazo-mordo bati egin behar die aurre: alde batetik, bi-biek uztetan eta lur tradizionaletan eragiten dituzten ondorioekin lotutakoak, egoera meteorologiko muturrekoak direla tarteko; eta bestetik, gainera, indar politikoarekin lotutakoak, beren lurra pixkanaka politizatzen ari baitira, baso-soiltzea eta klima-aldaketa geldiarazteko ahaleginean.

Herri indigenei aitortuak zaizkie eskubideak; batik bat, Herri Indigenen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Deklarazioaren bidez (2007an onartua). Baina, hala eta guztiz ere, bizileku dituzten basoein lotutako erabakiak hartu behar direnean, maiz askotan sistematikoki alde batera uzten edo baztertzen dira herri indigenak.<sup>8</sup> Instituzioek eta estatu-mailako programek nahiz sektore pribatuak jokatzen du hala, herri indigenak baztertuz, eta basoei buruzko ezaguera tradizionalak galtzea ekar dezake horrek.

Haurrei eta gazteei bereziki erasaten die baso-soiltzeak, bai epe laburrean bai epe luzean. Baso-soiltzeak eta basoaz baliatzeko beste modu ez-iraunkor batzuek handitu egiten dute behartsuen kopurua, bai eta geroan pobrezia aurre egin beharko dioten pertsonen kopurua ere. Horrek zuzenean erasaten die gazteek hartu beharreko erabakiei, eta horren adibide da, besteak beste, eskolara joateko aukerarik gabe geratzeko arriskua.<sup>9</sup> Klima-aldaketaren ondorioak gero eta indar handiagoak bihurtuko diren heinean, euri-basoetan bizi diren gazte indigenek geroko erronkei eman beharreko erantzunetan murgildu beharko dute. Eta horretarako gauza izango badira, orain bertan mamitzen ari garen ekimenetan bete-betean parte hartzeko trebatu behar ditugu. Horrenbestez, klima-aldaketa geldiarazteko eta aldaketak baso tropikaletan izango dituen ondorioei eusteko ahaleginei helduko diegunean, gazteekin lotutako estrategiak ere sartu beharko ditugu: eskolara joango direnen kopurua handitzeko estrategiak, batetik, eta gazteen bizibideak hobetzekoak, bestetik.



# Kilom

NOBLE MARSHALLDARRA:  
UHARTETIK EZ JOATEA

**K**ilomek zortzi urte zituenean, gustura egoten zen beren itsasbazterreko txabolan aitaren istorioak entzuten. Majuron etxe gehienak daude itsasbazterrean: atoloi bat da Majuro, koral-uharte bat, eraztun-itxurako lurzati estu eta erabat itxi gabeko bat, erdian urmael bat duena. Zabalean ez da 100 metro baino handiagoa, kostatik kostara; 40 kilometro luze da, eta 10 kilometro koadrokoa du azalera.

Marshall Uharteetako Errepublikako hiriburua da Majuro; Mikronesian dago, beraz: edozein kontinentetatik milaka kilometrora. 29 atoloik osatzen dute Errepublika, eta 1.200 uharte eta uhartetxo daude guztira, baina denen artean 200 kilometro koadro lehor ere ez da. Biztanle-kopuruari dagokionez, 70.000 lagun baizik ez dira bizi Marshall Uharteetan. Orain urte batzuk, Kilomek sei urte zituela, berak eta lehen mailako beste mutiko guztiek uharteko kale nagusi eta bakarrean zehar desfilatu behar izan zuten, beste askorekin batera; banderak kulunkan, musika airean. Egun hartan, 1986ko urriaren 21ean, Marshall Uharteek independentzia lortu zuten, eta errepublika bihurtu: Estatu Batuekin Elkartutako Estatu Libre.

Aitak uharte haietako istorioak kontatzen zizkion, bertako mitoak, bertako ohiturak. Arratsalde batean, aitak esan zion agian egunen batean lur haiek jarauntsiko zituela hark, Kilomek. Aitak azaldu zionez, noblea zen Kilom, *allab* bat, bere ama Takbar erregina baitzen, *le-iroij* bat; horregatik, are leialago eta begirune handiagoa izan behar omen zion bere herriari, bere ohiturei. Kilomen aita, Molik, japoniar merkatari baten semea zen, Marshall Uharteetara hogeiko hamarkadan iritsia: hain zuzen ere, Japoniak uharteak okupatu zituenean. 1945ean, Japonia garaitu ondoren, Kilomen aitona betiko alde egin zuen. Marshallarren kulturaren, alabaina, odola nahiz ondasunak amaren bitartez transmititzen dira, eta Kilomen ama, hain zuzen ere, *le-iroij* bat zen; hitzak, marshalleraz, *denak* esan nahi du: erregeari edo buruzagiari zegokion den arduraren hartzea. Kilomek jakin zuenez, zenbait mende lehenago, amaren arbasoak Mili uhartetik iritsi ziren hara, eta uharte hura oraindik ere bere familiakoena zen. Majuron nahiz uhartediko beste uharte batzuetan lurrak konkistatu zituzten. Kilomek lehendik ere oso maite zuen

bere herria, baina une hartatik aurrera, lur hari ia naturaz goragoko modu batean lotuta sentitu zuen bere burua.

*Lur honi zeharo atxikia naiz. Lurrak garrantzi handia du guretzat, oso opari baliotsua da. Hemen lur gutxi dugu, eta hortaz, ondo zaindu beharra daukagu, haren alde gogor borrokatu.*

Kilom hazi egin zen; bizimodua lasaia zen. Uharteetan, garai hartan, askoz biztanle gutxiago ziren, etxe gutxiago. Etxearen pare-parean zegoen hondartza batera jaitxi ohi zen Kilom; orain, biltegi bat eta kaia daude. Astegunetan, Kilom eskolara joaten zen, eta gero, saskibaloian edo beisbolearen jolastu eta ikasi. Larunbatetan eta igandeetan, elizara joateaz gain, inguruko uharteetara arrantzara ateratzen zen, edo adiskideekin edo neskaekin paseatzera, bestela. Gaueko hamarretarako, ordea, etxean behar zuen. Helduek, garai hartan, zorrotz samar jokatzeko zuten.

Ordenagailurik gabe, ia telebistarik gabe, uharteetaz haraindik mundua oso urrun

zegoen. Tartean-tartean, alabaina, izualdiak ere izaten zituzten. Horixe gertatu zen 1990ean, adibidez, Golkoko gerra hasi zenean, hain zuzen. Uhartediko atoloirik handiena, Kwajalein, garrantzi handiko pieza da Estatu Batuetako misil-sisteman, eta marshalldarrak, denbora batez, eraso baten beldur izan ziren.

Gerora, Kilomek funtsezko hitz batzuekin egin zuen topo, eta bere bizitzaren nondik norakoa erabat zehaztu zen. Lehen hezkuntzako azken mailetan zegoela, klima-aldaketari buruzko kontuak entzun zituen lehenbizikoz, baita itsas maila igotzeari buruzko kontuak ere; baina Kilomi ez zitzaion garrantzitsua iruditu. Marshall Uharteak itsas azpian geratuko

herrialdea desagertu egingo zen. Zerbait egin behar zuela pentsatu zuen Kilomek, eta hasteko, itsas biologia ikastea erabaki zuen.

*Orduan ohartu nintzen: guretzat, itsas mailak gora egitea hil edo biziko kontua da. Uhartea hondoratzen bada, gu, besterik gabe, desagertu egingo gara: gu, herrialdea; gu, herria; gu, kultura.*

Urtebete geroago, Kilomek 20 urte zituela, Japoniako gobernuak beka bat eskaintzen zuela jakin eta interesa agertu zuen. Aukera bikaina zen: gauza berriak ikasteaz gain, odolean zeraman beste kultura hura ezagutuko zuen. Kilom hautatu zuten; Japoniara joan eta ingeniari zibila ikasi zuen. Ez zen erraza izan: hizkuntza ikasi behar izan zuen, eta batez ere, gizarte hiperteknologiko hartan bizi. Han, dena zen lana, izugarritzkoa hiria, eta goizero, goizean goiz, 45 minutu eman behar izaten zituen, jendez gainezka egon ohi zen bagoiren batean sartuta, unibertsitateraino; eta herrialde hartan, hotza ere bazegoen. Baina gauza onak ere izan ziren: lehenbizikoz elurra ikusi zuen, ikaragarri ikasi zuen, eta batez ere, Japonian ikasten ari zen neska samoar bat ezagutu zuen, Jane. Ikasketak bukatutakoan, Kilom eta Jane Samoara joan ziren, eta han, ezkondu eta lehenbiziko umea izan. Sei hilabete geroago, Majuron ziren berriro.

Uharteetara itzulitakoan, eta kanpoan egoteak dakarren urruntasuna zela tarteko, bere herriak eta kulturak azken hamarkadetan izandako aldaketek ohartzen hasi zen Kilom: adibiderik nabariena janaria zen. Denbora luzean, han bertan zeukatena jan izan zuten marshalldarrek, ez besterik: arraina, itsaskiak, ogi-arbolaren fruituak, taroa, kokoa, batata, banana, manioka, azukre-kanabera, oilaskoa eta txerria. Baina japoniarrek arroza eta fideoak jateko ohitura utzi zieten, estatubatuarrak ogia jatekoa, eta orain, gauza horiek eta ia beste guztiak inportatu egin behar dituzte: janaria, edaria, arropa, koadernoak, orratzak, detergenteak, telebistak, platerak eta mahai-tresnak, botikak, eta batez ere, garraiorako eta argindarra sortzeko erregaiak.

Beste ezerk baino areago, uharteetara dirua iristek aldarazi zuen marshalldarrak kultura, lehen hemen dirudik ez zegoen eta; hala dio Kilomek. Jendeak, lehen, zeukan apurra partekatzen zuen: arrain bat, barazki batzuk, etxea edo kanoa egiteko behar zen lana... Gero, ordea, gutiziatsu bihurtu ziren, diruzale. Beste arazo batzuk ere ikusi zituen Kilomek:

*Uhartea garatu egin zen, eta hori ona da, baina garapen hori ez zen ondo antolatu, eta orain hamaika arazo ditugu: ekologikoak, osasun-arazoak... Demografia-hazkunde bizkorregia*

“Leku hau nire parte da, eta ni, leku honen parte. Triste da horretan pentsatzea, baina gertatu egingo da: gaur egungo egoeran, ezer gutxi egin dezakegu.”

zirela zioten atzerritar haiek txantxetan-edo ariko ziren. Zenbait urte geroago, bigarren hezkuntzako ikasketak bukatzen ari zela-eta zer ikasi erabaki beharrean zebilela, hitz haiekin egin zuen topo berriro, eta orduan bai, erabakigarriak iruditu zitzaizkion. Askok zioten bezala ozeanoak benetan gora egin behar bazuen, bere

*gertatu zen, eta azpiegiturak, orain, ez dira nahikoak. Baina marshalldar izateaz harro nago oraindik ere. Oso herri sortzaileria gara; uharte honetara orain dela asko etorri eta bizitzeko beste modu batzuk asmatu genituen. Munduko nabigatzaile onenak gara, askoren esanetan; kanoetan ehunka milia egiteko gai ziren guretarrek, inolako tresnarik gabe. Marshalldarrok lur honen parte gara, eta itsaso honen parte ere bai.*

Aspaldiko gai hura burutik ezin kenduta ibili zen Kilom: klima-aldaketa eta itsas mailak gora egitea. Hortaz, *Marshall Islands Conservation Society* izeneko GKEEn sartu (lehendik ere ibilia zen), eta buru-belarri heldu zion gaiari:

*Nire lanaren zati bat koral-arrezifea eta gure itsas baliabideak babestearen alde egitea da. Horiek galtzen baditugu, gureak egin du: gure diru-iturria galduko dugu, eta turismoa areagotzeko aukera ere bai. Baina beste zerbait dut buruan, batez ere: koralak osasuntsu daudenean, oso bizkor hazten dira, itsas maila igotzen dena baino bizkorrago agian; hortaz, arrezifeei esker, litekeena da guk ur gainean eman ahal izango dugun denbora luzatzea.*



### *Benetan uste duzu uharteak ur azpian buka dezakeela?*

*Tira, adituek oraindaino ez dakite zenbaterainoko azkar ari den igotzen itsas maila; hortaz, gauza bakarra egin dezakegu guk oraingoz: koral osasuntsuago eta bizkorrago haz dadin lagundu. Horrela babestu egingo gaitu olatuetatik, eta elikagai gehiago emango du. Baina, ez dakit... Itsas maila azkar igotzen ari baldin bada, hau guztia gauza gutxi izango da, ez da ezer aldatuko.*

Lurzoruaren higadura geldiarazteko, kostaldean zuhaitzak landatu ohi dira maiz.

Baina Majuron nekez egin daiteke halakorik, ia kostalde osoa etxeek eta familiek hartuta daukatelako eta zuhaitzak aldatzeko leku askorik ez dagoelako. Aireportutik gertu, kai-mutur gutxi batzuk eraiki ditu gobernuak, ura geldiarazteko; baina horrelakoetarako kare-harria koral-arrezifeetatik ateratzen du, dinamita tarteko. Arrezifeen egitura ahuldu eta urrituta, uhartea haizeei, ekaitzei eta uholdeei begira babesgabeago geratzen da. 2008ko abenduan, esaterako, itsaso nahasia zebilela-eta, urak uhartea hartu zuen. Milaka lagunek etxetik hanka egin behar izan zuten, eta gobernuak, Eguberri-egunean, larrialdi-egoera deklaratu zuen. Orain, kostalde horretan, urak suntsitu

aurretik hilerri txukun bat izan zeneko hila-  
rriak ageri dira, han-hemenka, hondarretan  
sakabanatuta.

*Uhartean ez dago eraikuntzarako materia-  
lik. Hortaz, uharteko alde bat sendotu  
nahi izanez gero, beste alde bat sakrifikatu  
behar da.*

*Rib raps* izeneko zementuzko blokeak ere  
badaude, eta besteak baino sendoagoak eta  
eraginkorragoak dira; baina oso garestiak dira,  
eta gobernuak ez du halakoak erosteko dirurik.  
Nolanahi ere, behin-behineko irtenbideak dira  
denak; urte batzuetarako baizik ez dute balio.

*Egunen batean uharte hau ur azpian gera-  
tuko da, badakit. Ez dakit zer gertatuko  
zaien guretarrei, gure bizitzeko modu honi.  
Marshallera desagertu egingo da, marshall-  
darron kultura ere bai, eta hori oso gogorra  
da niretzat, leku honi estu lotuta nagoelako.  
Maite dut leku hau, neure-neurea dut.*

*Orduan, ezin saihestuzkoa da, zure  
ustez?*

*Saihestezina da, bai. Gertatzen ari da:  
kasko polarrak urtzen ari dira, eta azkar;  
eta hein berean, itsas maila igotzen ari  
da. Geroratu liteke prozesua, hori bai;*

*baina lehenago edo geroago, ur azpian  
geratuko gara. Agian ehun urte barru, edo  
berrehun urte barru, auskalo. Baina niri  
dagokidanez, ni bizirik naizela gertatuz  
gero, nahiago nuke uhartearekin batera  
hil hemendik joan baino. Itsasontziarekin  
batera hondoratuko naiz: leku hau nire  
parte da, eta ni, leku honen parte. Tristeia  
da horretan pentsatzea, baina gertatu egingo  
da: gaur egungo egoeran, ezer gutxi egin  
dezakegu. Pentsa zer gertatuko litzatekeen  
zure herrialdea ur azpian desagertzeko  
zorian balego.*

Majuron, lekurik garaiena itsas mailatik  
hiru metrora dago. Hemen, beraz, arriskua  
beti dago hor.

*Falkland Uharteetakoak, tuvalutarrak  
eta arriskuan dauden beste uharte  
batzuetakoak lur bila dabilza, joateko.  
Zer deritzozu horri?*

*Tira, marshalldar batzuek ere nahiago  
dute Estatu Batuetara joan. Denak ez gara  
berdinak.*

Marshall Uharteetan, handia da pobrezia,  
handia langabezia, eta gazte asko ez dira  
Kilomen iritzikoak: nahigo dute ahal duten  
bitartean handik joan, eta elkartzeko libreaki

esker, Estatu Batuetan bizitzeko eskubidea dute.  
Azken hilabeteotan abian jarritako programa  
baten bidez, esate baterako, zenbait hotel-jabe  
estatubatuarrek Majuroko 800 gazte kontratatu  
dituzte, beren hoteletan-eta jardun dezaten.  
Majuron 25.000 dira biztanleak; horietatik  
800 gaztek alde egitea, beraz, kolpe latza da.

*Ni hementxe hilko naiz. Nire amona,  
herenamona, denak, hemen daude  
ehortzita, eta ni ere hemen ehortziko  
naute, hortaz. Ezin imajina dezaket nire  
burua denbora luzean beste herrialde  
batean bizitzen. Baina oso zaila da  
pentsatzea dena desagertu egingo dela:  
lan egitera bultzatu nauten gauzak,  
ahaleginean jardutera eraman nautenak...  
Batzuetan neure buruari galdetzen diot:  
«Zergatik egiten dut hau? Zergatik egiten  
dut beste hori?»*

*Eta zer erantzuten duzu?*

*Hobe dela zer edo zer egitea, baita egoera  
honetan ere, ezertxo ere ez egitea baino.  
Eta edonola ere, ahal dudan guztia egingo  
dut nire herria ur azpian geratzeko unea  
atzeratzearren. Saiatu egingo naiz, behinik  
behin; horixe da nire eginbeharra.*

## UHARTE TXIKIAK

### ITSASOAK GORAKA ETA AUKERAKETAK

Aurreikuspenen arabera klima-aldaketak nolabait herrialde guztiei eragingo badie ere, uharte txikiek daukate arriskurik handienak. Altituderik txikieneko eremuetan eta uharte txikietan bizi direnak beren etxeetan bizi ezinda gera litezke datorren mendean, klima-aldaketak eragindako zenbait fenomenoren ondorioz: itsas maila igotzea, ekaitz tropikalak...<sup>1</sup> Arrisku horiei aurre egin behar izateaz batera, beste zerbait ere gertatzen zaie uharte txiki askori: garapen bidean daude eta biztanle gutxikoak dira; eta horrek esan nahi du klima-aldaketaren ondorioz sortuko diren egoerei aurrea hartzeko, haiek arintzeko eta haietara moldatzeko gaitasunari dagokionez oztopo latzak dituztela.

Itsas mailak gora egite hori da, klima-aldaketaren ondorioen artean, eztabaidatuenetako bat. Esan bezala, Ozeano Bareko uharte txikiak urak hartuko ditu, zati batean edo erabat, eta herrialde batzuk dagoeneko hasiak dira tokian tokiko biztanleetako asko non eta nola kokatu antolatzen; Kilomen hitzetan ikusi dugunez, gainera, alde egindako askok atzera ez itzultzea erabakitzen dute.

2100erako uharte txikiak desagertuta egotea ez da, nola nahi ere, bertako biztanleen kezka bakarra. Litekeena da klima-aldaketak dagoeneko badauden arazoetako batzuk areagotzea eta oso egoera larriak sorraraztea, baina ez geroan, oso geroan, baizik eta baita itsas mailak gora egitearen ondorioz uharte txikiak ezin bizikoak bihurtu baino lehen ere. Egia da, bai, uharte guzti-guztiak ere ez direla ur azpian geratuko; aurreikuspenak behintzat ez dira hainbestearinokoak. Baina horrek esan nahi du sor litezkeen arazoetarako epe luzeko irtenbideak garatu behar direla, itsasoak gora egin arren erabat ur azpian

geratuko ez diren uharte txiki horietan etorkizunean bizi ahal izango bada.

Arazoetako bat denek dute, munduko uharte txiki guzti-guztiek, hain zuzen: ur-horniketa eta ur geza lortzea. Oro har, halako uharteetan ur gutxi izaten dute, eta hornidura mugatua neurritz erabili behar izatea eguneroko kontua da. Alde horretatik, klima-aldaketaren ondorioz are ur-baliabide gutxiago izango dutela uste da. Zergatik? Bada, funtsean, itsas maila igotzearen eta euriteak aldatzearen ondorioz; gerta bailiteke, ziur asko gerta ere, ur gezako erreserbak gatzez kutsatzea, gazitzea.<sup>2</sup> Eta zenbait lekutan, ura gutxiagotze hori ezin itzulizkoa izango da.

Ura gazitzeak beste ondorio txar bat ere badakar: landu daitezkeen lurzoruak hondatzea. Mikronesian, adibidez –hantxe bizi da Kilom–, taroa da oinarriko elikagaia, eta landare-mota hori altitude txikiko eremu zingiratsuetan landatzen da: itsas mailak gora eginez gero itsasoko urez –ur gaziz, beraz– erraz betetzeko moduko leketan. Ur gaziak lurzoru kutsatuz gero, bi urte ere behar izaten dira euri normalek hura garbitzeko, eta taro-landareak beste bi edo hiru urte, haren uzta biltzeko moduan egoteko. Ur gazia maizago sartzen bada –olatu erraldoien, itsas maila igotzearen edo prezipitazioen eraginez–, lurzoruak zailtasun handiagoak izango ditu bere onera etortzeko. Tarogintzan nahiz beste edozein laborantzatan halako kalteak izatea kolpe itzela da uharte txikietako ekonomietarako, askok eta askok elikagai-mordoa inportatu beharra baitaukate dagoeneko ere.

Uharte txiki asko zona tropikal edo subtropikaletan daude, eta gaixotasun batzuk kezka gerora ezin zaizkie halako estatu batzuei, hala nola dengea, beherakoa eta malaria. Berez ez dakigu ziur klima-aldaketak gaixotasun

horien eragina handiaraziko duen, ez eta eragina areagotuz gero non eta nola handituko duen ere; baina edonola ere, aztertu beharreko gaia izango da, tenperaturek gora egiten badute, ur geza lortzeko modua arriskuan gertatzen bada eta urtaro hezeak aldatzen badira.<sup>4</sup> Beste faktore batzuek ere gaixotasunak heda daitezela laguntzen dute, hala nola hondakinak gaizki erabiltzeak eta azpiegiturarik ezak.

Goi-latitudeetan dauden uharte txikiei dagokionez, klima-aldaketak bertako dibertsitate biologikoa aldaraziko duela uste da, eta horrek eragina izango du, noski, ekonomian eta bestelakoetan. Islandiako ekonomian, esate baterako, garrantzi handi samarra du arrantza-industriak, esportazioen aldetik dakartzan diru-sarrerak direla tarteko, eta dirudienez *Mallotus villosus* espezieko arrainaren stocka kolapsatu-edo egingo denez, horretara moldatu beharko du Islandiak, inguruko uretan saltzeko harrapatzen duten zenbait animalien bazka da-eta delako arraina, hala nola baleena, fokena eta beste harrapari batzuen.<sup>5</sup>

Uharte txikietan bizi diren gazteek erabaki zailak hartu beharko dituzte, badatorkigun klima-aldaketa horri begira. Hemen geratuko naiz eta ahal dudana egingo dut (Kilom bezala), ala hanka egingo dut eta beste norabait joan? Ez du axola zer erabaki hartuko duten. Ziur asko, klima-aldaketak ondorioak izango ditu uharte txikietan bizi diren gazteen bizitzetan, eta ondorio kaltegarriak izango ditu, ziur, bai haien bizibideetan, bai eta haien osasun fisiko eta psikologikoan ere. Uharte txikietako gazteek beren etorkizunaz hartutako erabakiak zeinahi direla ere, sendo bermatu behar dugu haien aukeraketan ez direla oztopo izango ez heziketa jasotzeko aukerarik eza, ez bizibide falta eta ez osasun-zerbitzurik eza.



# Mandisa

ESTATUBATUARRA: ASKATASUNERAKO ANTOLATZEA,  
HONDAMENDI BATI ERANTZUTEA

**A**stelehen hartan jende askoren bizitza aldatu zen; besteak beste, Mandisarena. Berez, Estatu Batuetako hegoaldean den New Orleans osoaren bizitza aldatu zen astelehen hartan, 2005eko abuztuaren 29an, hirian Katrina urakana sortu zenean.

Mandisa 1985ean jaio zen, Brooklynen (New York). Gurasoak hamabi urte lehenago joan ziren hara, biak ere hegoaldeetarrak: ama, Hego Carolinako, eta aita, New Orleanskoa. Bizitzeko leku hobe baten bila abiatu ziren iparraldera: afroamerikarra izateak gauzak zailago bihurtzen ez zituen leku baten bila.

*Historikoki, hegoaldean urri dira baliabideak eta inbertsioa. Garai hartan, legez berez bukatuta bazegoen ere, hemen oraindik bizirik zen arrazakeria. Eta New Yorkek, alde horretatik, ametsak egia bihurtzeko moduko hiria zirudien.*

Mandisaren aita sendagilea zen; portuko langile baten eta ile-apaintzaile baten seme izanagatik ere, ikastera Kaliforniara joateko aukera izan zuen, beka bati esker, eta garai hartan

New Yorkeko ospitale batean ziharduen. Ama, berriz, komunitate-antolatzailea zen, eta emakumezkoen eskubideen alde ziharduen. Mandisak sei urte zituela, New Orleansera itzultzea erabaki zuten: hantxe zituzten familiakoak eta sustraiak, eta hantxe hezi nahi zituzten seme-alabak –Mandisak bi anaia nagusi ditu–, berezko zuten kulturaren. New Orleansen, *kultura* hitza oso hitz sakona da; hiri espainiarra eta frantsesa izan zen lehen, Estatu Batuetako kultura-adierazpen garrantzitsuenetako baten sorleku bihurtu baino lehen: jazzarena, hain zuzen.

New Orleansen, eskolan hasi zen Mandisa, eta sekula izan ez zituen zenbait arazorekin borrokatu behar izan zuen: neska handia zen, eta hitz-motela eta afroamerikarra, gainera, eta neska-mutiko batzuek iseka egiten zioten.

*Neska-mutil batzuek esaten zidaten «zikina zaude, zikina zaude»; orduan, ni negarrez joaten nintzen etxera, eta amak galdetzen zidan ea zer gertatu zitzaidan, eta nik esaten nion «bainatu nahi dut, zikina nago eta», eta amak esaten zidan «ez zaude zikina», eta familiakoen argazkiak erakusten*

*zikidan: «Begira, zure aita azal ilunekoak da; zure amona, osaba-izebak, denak gara azal ilunekoak. Ez dago zikinik ezer zugar; horrelakoak gara, eta horrela ondo da».*

Laster, garrantzi handiko zerbait ikasi zuen Mandisak: beren burua *normaltzat* daukatenez *besteak* gutxietsi ohi dituztela. Eta horretaz ohartutakoan, behar bat sentitu zuen: bere estatua indartzeko beharra. Pubertaroan, zazpi edo zortzi ikaskidek osatzen zuten Mandisaren eskolako lagun-taldea, eta denek ere ezaugarri berean oinarrituta zeukaten identitatea: desberdinak izatea. Elkartzen zirenean, boladan ez zegoen edozer egiten zuten: xakean ibili, liburu zailak irakurri, frantsesez ikasi, galdera-erantzunen lehiaketak antolatu, eta batez ere, merkataritzaguneetara ez joan. Gauza bat erakutsi nahi zieten besteei: haiek bezalakoak ez zirela.

Arte-eskola batean ere bazebilen Mandisa, idazketa lantzeko programan, hain zuzen. Gauza asko egiten zituen; eta tartean, egunean pare bat orduz telebista ikusten edo lagunekin Internet bidez txatean jardun ere bai. 16 urte zituela, familiako indarkeriaren biktima zirenei

babesa emateko leku baten berri jakin zuen Mandisak, eta uda hartan bertan, Crescent House erakundean lanean hasi zen, boluntario: tratu txarrak jaso izan dituzten ehunka emakumeri eta haien seme-alabei laguntzen aritzen da erakundea, eta aldi baterako babesa eta etxea emateaz gain, heziketa ere eskaintzen die, bai eta aholkularitza juridikoa ere. Gizon batzuek bikotekidea jotzen zutelaren pentsatze hutsak bere onetik ateratzen zuen Mandisa, eta abokatu izateko ikastea erabaki zuen: familia-kontuetan espezializatuko zen, eta babes-etxea, ezbairik gabe, abiapuntu bikaina zen.

“... nire bizitza hankaz gora jarri eta erabat aldatu zuen. Nire ustez [...] jende askori garbi erakutsi zion ezin egon gaitezkeela gobernuaren mende, hark gu noiz salbatuko zain, eta aitzitik, gizarte-sareak sortu behar ditugula, gure burua geuk salbatzeko.”

Bi urte geroago, Estatu Batuetan erabat ohikoa duten iragaite-erritua egiteko unea iritsi zitzaionean –graduatzea eta unibertsitateak ikustera joatea–, New Orleansen geratzea aukeratu zuen Mandisak; hala, familiako indarkeriaren kontra borrokatzen jarraitu ahal izango zuen. Loyola University erakunde katoliko tradizionala zen, eta hantxe lortu zuen beka.

*Indarkeriaren kontrako borroka identitate feminista eratu zuen nigan; horregatik egin nuen bigarren espezializazioa Emakume Gaietan. Aldi berean, alabaina, arrazakeriaren kontrako identitatea ere ari zen sortzen nigan –beltzen aldeko identitatea, alegia, eta gogor, gainera. Arraza-kontuak eta diskriminazioa aldi bereko zerbaite ziren.*

Unibertsitatean, jende berri asko ezagutu zuen Mandisak: beste estatu batzuetako jendea, beste herrialde batzuetakoa. Baina orduan ere besteek *desberdintzat* zeukatela sentitu zuen. Gurasoen Egun hartan, adibidez: Angela Davis ekintzaile afroamerikar ezagunaren aurpegia ageri zuen elastikoa ez erabiltzeko eskatu zioten. Pixkanaka, campuseko politikan sartzen hasi zen, eta han ere oztopo bat aurkitu zuen: diskriminazioaren aurka ziharduten taldeak zatituta zeuden, eta hortaz, eraginkortasun gutxi zuten. Genero-edo sexu-gaiez arduratzen zirenek ez zuten interesik arraza-kontuetan, eta alderantziz. Talde haien artean zubi-lanak egiten saiatu zen, baina behin eta berriz hitz berberak entzutera ohitu ere bai: «Baina benetako arazoa beste bat da».

Hasieran, zenbait ikaskiderekin bizi zen Mandisa, baina unibertsitateko giroarekin aspertzen hasi zen: askorentzat, festetara joatea besterik ez zen ikasle-bizitza, mozkortzea eta piper egitea, eta ez, ordea, arduraren bat hartzea, munduan ekarpenen bat egiten saiatzea.

Campuseko aktibismoa uzten hasi zen, eta berriro ere komunitateko lanari heldu zion; egun haietan, askapenaren teologiari buruzko eskolak eman zizkioten, eta Mandisaren hitzetan, bizitza aldarazi zion horrek, orduan ohartu baitzen ikuspegi okerretik begiratu izan ziola lan politikoari: «justizia- eta askapen-kontua da, funtsean, eta ez, ordura arte uste nuen bezala, *jendeari laguntzea*». Orduan ohartu zen: besteei *lagundu* nahian zebilen horretan, ez zituen berdintzat hartzen, bera *desberdintzat* hartu izan zuten haien antzera.

Aste gutxi batzuk geroago, 2005eko udaberrian, Insight izeneko talde batek antolatutako hitzaldi batera joan zen; gaia, «Emakumezko beltzak indarkeriaren kontra». Zeuzkan kezka guztiei heltzeko aukera ematen zion gune hark, eta denei batera, gainera, ez banaka. Hainbat gai eta kontu lotzeko prest zegoen talde hura, osotasuna ulertzeko: genero-, arraza-, klase-, indarkeria- eta sexu-kontuak, denak.

Eta orduan, astelehen hura iritsi zen. Beti izan dira urakanak, baina zientzialari askoren ustez, gero eta bortitzagoak dira, eta gero eta sarriagoak ere bai, klima-aldaketaren ondorioz: lehen tartean-tartean gertatzen zena gero eta kontu sarriagoa bihurtzen ari da. Katrina urakanak Floridako hegoaldea zeharkatu zuenean, ekaitz arina zen, 1. mailakoa; baina Mexikoko golkoa zeharkatzean indarra hartu zuen, zientzialariek «mantsotzeko mekanismo



guxitua» deritzotenaren ondorioz: zikloi batek bidean ur hotzagoa aurkitzen badu, indarra galtzen du; Mexikoko golkoko ur epelek, ordea, indartu egin zuten Katrina. Louisianako hegoekialdera iritsi zenerako –astelehen goizerako, alegia–, 3. mailako ekaitza zen dagoeneko, eta New Orleans hiriko babes-sistema berrogeita hamar puntutan suntsitu zuen: hiriaren hiru laurden baino gehiago urpean geratu zen.

Uda hartan, Frantses Auzoko taberna batean zebilen Mandisa lanean. Larunbatean goizeko bederatiak arte egin zuen lan; oso nekatuta zegoen, eta amak deitu zion esateko urakan bat zetorrela eta hiritik alde egin behar zuela; familia osoa Atlantara zihoan, izeba baten etxera. «Ni ez noa»; ba omen zituen egun horretarako planak. Baina gurasoek ez zuten etsi, eta azkenean, igande goizean anaia nagusia Mandisaren

apartamentura joan, haren gauzak bildu eta elkarrekin joan ziren Atlantara, denak batera.

Astelehenean, telebistako irudiak ez ziren izugarriak, eta Mandisak pentsatu zuen urakanaren ondorioak ez ziela izan hain larriak azken buruan. Baina ilunabarrean adiskideen mezuak jasotzen hasi zen: dikeak apurtzen ari zirela, hiria urez beteta zegoela. Telebista ere horren berri ematen hasi zen, eta orduan bai, zerbait ikaragarria gertatzen ari zela ohartu zen Mandisa. Hurrengo egunean, pisukide baten berri izan zuen: apartamentua ur-mailatik bi metro behera zegoela, eta den-dena galdu zutelak; hala esan zion. Gero jakin zuenez, lanean aritzen zen komunitate-zentroa ere urak hartuta zegoen erabat, eta unibertsitatea ezin zabalduko zuten zenbait hilabetez. Egoera larria zen; hiria ez zen sekula berriro lehengoa izango.

Katrina urakanak 1.836 lagun hil zituen gutxienez, eta askoren esanetan, «Estatu Batuetan inoiz gertatutako natura-hondamendi handiena» izan zen. Kalte ekonomikoak ehun mila milioi dolarretik gorakoak izan ziren. Milaka lagunek etxea galdu zuten; hasierako egunetan, hiri hartako biztanle askok nora joan ere ez zeukaten. Oraindik ere, askok ezin izan dute itzuli.

Mandisarentzat ere nahas-mahas hutsa zen dena. Hiria husteko agindua iritsi zenean, askok ez zeukaten alde egiteko modurik, eta natura-hondamendi gehienetan gertatu ohi den bezala, inork ez zuen ezer ulertzen. Mandisa sutan zegoen:

*Nola zitekeen? Kazetariak bai lortzen zuten hirira sartzeari, hiltzen ari zirenei-eta argazkiak ateratzeari, baina jendeak ezin zuen atera. Nola zitekeen hori? Ezin uler zezakeen. Eta ulergaitza zitzaion, halaber, nolatan ari ziren zooko animaliak ateratzen, jendea baino lehen.*

Mandisa New Orleansera itzuli zenean, hauxe galdetu zion bere buruari: «Nola biziko naiz hemendik aurrera, mundu honetan egin nahi dudana kontuan hartuta?». Eta lehen-biziko erantzuna etxebizitza-gaietan jardutea izan zen: kanpora joandakoak leku egokietan bizi zitezela lan egitea. Urakanaren biktimei entzuten ematen zituen Mandisak egunak;

beren babeslekuetatik noiz botako zain zeuden denak. Beste hamaika arazo ere sortu zen: jen-deak ezin zuen lanik egin, urakanak lantokiak suntsitu zituen-eta; zerbitzuen industria kalte itzelak jasaten ari zen, turismoa eten zela-eta... Gainera, kezka zen nagusi gizar-tean. Mandisak zeukan guztia galdu zuen, eta edaten hasi zen, hainbeste galtzarekin borrokatzeko-edo eta lagunartean urakanarekin izandako bizipenez aritzeko-edo:

*Katrina urakanaren ondoren, jende askok behar izan zuen buru-osasunarekin lotu-tako laguntza: orientazioa, terapia... Baina ez zen erraza halakoak lortzea. Eta nire adiskide batek beti dioen moduan, «ardo merkea beti da merke: dolar bat eta berro-geita bederatzi zentabo baino ez».*

Lanean zebilela, gauza batez ohartu zen Mandisa: natura-hondamendi hartan, beste askotan bezala, emakumeek jasan behar izaten dute zamaren zatirik astunena, okerrena. Etxeko nagusi zaurgarrienak dira: haurrak zaindu behar dituzte, sexu-indarkeriaren biktima izateko arriskua pairatu, eta askotan, ezin lortu izaten dituzte beharrezkoak zaizkien osasun-zerbitzu berariazkoak. Insight erakundearen hitzaldian ezagutu zuen emakume baten bidez, *Women's Health and Justice Initiative* erakundearekin jarri zen harremanetan, eta 2006an talde bateko kide

sartu zen, gerora emakumezkoen osasunean espezializatutako klinika bat sortzea erabaki zuena.

*Emakumezkoentzako leku bat sortu nahi genuen: emakumezkoek doan edo merke osasun-laguntza izateko leku bat, baina kalitate oneko laguntza emango zuena, edonork jasotzeko modukoa eta integrala, eta giro jatorrean, gainera, inor juzgatua senti ez zedin, eta kontuan izango zuena jendeak arazo pertsonalak dituela Katrinaren ondoren.*

Mandisarentzat garrantzi handikoa izan zen aztertzea zerk eragiten dituen emakumeengan osasun-kezkak natura-hondamendien ondorengo egoeretan. Boluntario moduan lan-mordoa egin eta dirua bildu ondoren, klinika zabaldu zuten, 2007ko apirilean. Garai berean, fundazio batek beka bat eman zion Mandisari, eta hari esker, tabernako lana utzi eta lanaldi osoa komunitate-antolatzaile moduan jardun ahal izan zuen, *Women's Health Initiative* eta *Institute of Women and Ethnic Studies* erakun-deen bitartez, GIBari eta HIESari buruzko proiektu batean: Mandisa sexu-osasunarekin lotutako gaietarako hezitzaile bihurtu zen.

Ordurako, Mandisak bukatuta zeuzkan unibertsitate-ikasketak: bukatzeko premiarik batere ez zuen sentitzen, baina aurrez egin-

dako ahaleginak ere ez zituen galdu nahi, eta Historia, Soziologia, Zientzia Politikoko eta Emakume Gaietan graduatu zen.

*Nola definituko zenuke zure burua?*

*Askapenaren alde diharduen norbait naiz. Edo antolatzaile bat. Ezin erabaki dezaket zer hitz erabili, antza. Baina orain gauzak aldatzen ari dira, apur bat: legeak ikasteko eskolan eman dut izena, datorren urterako; Louisiana State University delakoan hasiko naiz, hemendik ordubete ingurura.*

Mandisak dioenez, ez du abokatu izan nahi, bere lan sozial eta politikorako beharrezko diren ezaguerak ikasi baizik. Hortaz, beti bizileku izan duen hiria utziko du, eta bere jarduerak ere bai, antolaketa-lan horretan aurrera egiteko baliagarriak izango zaizkion beste baliabide batzuk lortzeko.

*Katrina funtsezkoa izan zen honetan guztian. Niretzat shock izugarria izan zen; nire bizitza hankaz gora jarri eta erabat aldatu zuen. Nire ustez, Katrinak jende askori argi eta garbi erakutsi zion ezin egon gaitezkeela gobernuaren mende, hark gu noiz salbatuko zain, eta aitzitik, gizarte-sareak sortu behar ditugula, gure burua geuk salbatzeko.*

## NATURA-HONDAMENDIAK EKAITZAREN BEGIAN, EMAKUMEAK

Urakanak, hala nola Katrina (2005ekoa), mutur-muturreko fenomeno meteorologikoak dira: hildakoak eragiten dituzte, azpiegiturak suntsitzen, kalte psikologikoak eragiten, eta gobernuei nahiz herri-hiriei ondorio finantzario astunen zama uzten. Klima aldatzen eta tenperaturak igotzen doazen heinean, litekeena da hondamendi meteorologikoak gero eta larriagoak eta ohikoagoak bihurtzea. Zaila da kalkulatzeko zenbateraino areagotuko den eragina, baina Global Humanitarian Forum saiatu da horretan, eta hark iragarritakoaren arabera, fenomeno meteorologikoekin lotutako hondamendiak ugariagoak izango dira 2030erako, 1975-2008 denbora-bitartean aldean, eta betiere mundu-mailan.<sup>1</sup>

Gaur egun, bai herrialde garatuetan bai garapen bidean direnetan, kostaldeko hiriak hazten eta zabaltzen ari dira, landatik hirirako migrazioa dela tarteko, batetik, eta hirietako bertako biztanleriaren berezko hazkunde dela medio, bestetik. Hiriak handitze horrek ibaien deltetako hezeguneak galtzea dakar, maiz askotan, eta arazo ugari sor ditzake horrek, hezeguneei esker izugarri arintzen baitira ekaitzen eta uholdeen ondorioak. Basoei dagokienez, beste horrenbeste; eta horren adibide da, esate baterako, Mitch urakanaren ondoren Erdialdeko Amerikan uholdeek eragindako kalteak: aurretik eskualdean basoak soildu izan ez balituzte, kalteak askoz arinagoak izango lirateke.<sup>2</sup> Kostaldean ez ezik, muturreko gertaera meteorologikoen eraginpean dauden beste leku batzuetan ere hazten ari dira hiriak, hala nola sakanetan eta mendi-hegaletan, eta horrek esan nahi du hiri horietako biztanleek ere antzeko arriskuak dituztela.

Natura-hondamendiek gertatu eta berehala nahiz epe luzean dituzte ondorioak. Itota, elektrokutatuta edota asfixiatuta hiltzea edo zaurituta gertatzea dira berehalakoak. Urarekin lotutako hondamendi bat gertatu eta hurrengo hilabeteetan

–urakanen edo uholdeen ondorengoetan, adibidez–, izugarri handitzen da uraren bidez transmititzen diren gaixotasunak edo infekzio-gaitzak agertzeko arriskua. Eta lekutik jende askok joan behar izan badu, arriskua are handiagoa da. Dena den, estrategia egokiak baliatuta, gaixotasun-agerraldi larririk ez izatea lortzen da eskuarki.<sup>3,4</sup> Garapen bidean diren herrialdeetan, askoz arrisku arruntagoetara moldatzea izaten da erronka; horretarako azpiegiturak eta finantziarioa behar da, alabaina, eta horrek izugarri estutzen ditu tokiko ekonomiak, bestela ere nahikoa estututa badaude eta.

Epe luzeko ondorioei dagokienez, era askotakoak izaten dira, eta beti berberak ere ez, gainera, asko dira-eta faktoreak: hondamendi-mota, larrialdiari emandako erantzunaren eraginkortasun-maila, tartean dauden pertsonen kopurua... Oro har, istilu sozialak pizteko arriskua egoten da, eta ohiko samarra izaten da, halaber, traumak sortzea eta legea beteazteko zailtasunak izatea. Hondamendi osteko egoeretan, buru-osasunarekin lotutako alderdiak ez dira izaten zauriak bezain nabariak edo azpiegiturretan izandako kalteak bezain agerikoak; baina edonola ere, ondorioen parte dira, eta ez nolanhikoak, gainera. Maiz askotan, jendearen jokabidea aldatu egiten da hondamendi bat pairatu eta gero: arriskuko gauzak egiten hasten da, norberaren kalterako diren gauzak egiten ere bai (alkohol gehiegi edaten, adibidez), baita besteentzako kaltegarri direnak egiten ere (indarkeriazko jokabideak, esaterako).

Ugalketa-osasunari dagokionez, hondamendiak eta krisi-egoerak kezka larriak izaten dira. Eskuarki, krisi baten ondorioz jendea bere bizilekutik atera behar izan denean, haurdunaldian konplikazio hilgarriak izan dituzten emakumeen kopurua ez da egoera normaletan izaten dena baino handiagoa izan, baina larrialdiko laguntza obstetrikoa lortzeko

aukeretan bai izaten dira zailtasunak. Halako egoeretan, ugalketa-osasunerako inputen banaketa murriztu egiten da aldi batean: botikak, antisorgailuak... Jendeak denbora luzea ematen badu ebakuatuta –aldi baterako kanpamentu edo etxebizitzetan–, oso maiz gertatzen da zenbait arazo area-gotzea, hala nola familiako indarkeria, bortxaketak...<sup>5</sup>

Hondamendien ondorioei dagokienez, emakumezkoak gizonezkoak baino zaurgarriagoak izaten dira gehienetan, gizartean bertan gizonezkoen mende egon ohi dira-eta emakumezkoak. Gainera, krisialdian askotan areagotu egiten dira genero-desberdintasunak. Etxeko lanak aurrera eramatea are nekezagoa gerta liteke krisi-egoeretan, edozer lortzea zaila izaten da-eta halakoetan: erregaiak, ura, elikagaiak... Bestalde, familiaren sostengutzat askotan gizonak hartzen direnez, gerta liteke hondamendiari aurre egiteko ardura duten erakundeek eta agintariak gizonengana jotzea familietara iritsi nahian, eta beraz, emakumeak eta haien arazoak ezkutuan uztea: batik bat, familiaren buru emakume senargabeak baldin badira. Sarritan, hondamendien ondoren askoz luzeago jotzen du emakumezkoak ekonomikoki suspertzea gizonezkoak suspertzea baino, emakumezkoek estatus sozioekonomiko eskasa dutelako.<sup>6</sup>

Gazteei dagokienez, hondamendien ondoren aukera asko gabe geratzen dira askotan: heziketa, osasun-zerbitzuak, gizarte-sareak... Eta horrek areagotu egiten du gazteak kontu arriskutsutan sartzeko arriskua. Horrenbestez, hondamendien ondorioak arintzeko ahaleginak egingo direnean, kontuan izan behar da, beste faktore askoren artean, gazteak sexualki aktiboak direla, eta, beraz, ugalketa-osasuneko zerbitzuetara jotzeko aukerak urrituz gero, arrisku handiagoa dagoela gazteak nahi gabe haurdun geratzeko, bai eta sexu bidez kutsatzen diren infekzioen batez gaixotzeko ere.



# Youness

FUTBOLARI MAROKOARRA:  
BIZIMODU BERRI BATERA MOLDATZEA

**E**uri hura normala iruditu zitzaion hasieran, beste askotakoa bezalakoa; baina egia esan, lau egun zeramat-zaten euria goian-behean. 2009ko otsaileko goiz hartan, adiskideekin berriketan eta karte-tan zebilen Youness, elkartu ohi ziren lekuan: herrira sartu aurretixoan dagoen muinoan, erortzeaz zegoen etxe batean. Herri txikia zen hura, bi dozena etxeko haran bat, besterik ez. Sidi Slimanen inguruan zegoen, eta hura bai zen hiri handia, 150.000 biztanle ingurukoa, Marokoren erdi-erdian kokatua, Rabat hiriburu-rutik ez oso urrun. Youness ez da nekazaria, baina haren aita bai: gurasoak 20 urte lehenago joan ziren hara hegoaldeetik, Marrakech inguruetatik, bizitzeko eta laborantzarako leku hobe baten bila. Hegoaldea lehorra eta beroa da; Gharbeko lautadan, aldiz –Sidi Slimane inguruetan, alegia–, epelagoa eta hezeagoa da klima, eta lurra, berriz, emankor-rragoa. Bi hektarearen jabe egin ziren han, eta bananak eta fruitu txikiak hazten hasi.

Goiz hartan, bat-batean, jolasean ari zirela, Younessek eta adiskideek zerbait arraroa

sumatu zuten: oihuak, joan-etorri ezohikoak... Kanpora irten ziren, ea zer gertatzen zen ikus-tera: han behean, herrian, auzotarrak alde batetik bestera lasterka zebiltzan, oihuka, etxeak urez betetzen ari zitzaizkiela-eta. Herriko etxeak adobezkoak ziren, buztinezkoak; eta ura, haranean, dagoeneko gerriraino iristen zitzaien gizon-emakumeei, etxeetatik gauzak atera nahian zebiltzan haiei: lastairak, altzariak, arropak... Youness eta adiskideak lasterka jaitsi ziren behera, perrailak hartu eta laguntzera.

Arratsaldeko hirurak aldera egoera kontrolpean zegoen: etxerik kaltetuenak hustuta zeuden, eta apurka-apurka, atertzen ari zuen. Auzotarrak nekatuta eta haserre zeuden, baina lasaiago ere bai, aldi berean: azken buruan, beste batzuetan ere gertatu izan zitzaien halakorik.

Gau hartan, afaritan, Younessek eta gurasoek eguneko gorabeherak izan zituzten hizpide: Mohammedek irratia galdu zuela, Hanae haurtxoarentzako arroparik gabe geratu zela... «Eskerrak atertu duen eta euria ez den gureraino iritsi» esan zuten;

eta bai, Younessen-eta etxea goraxe zegoen. Bederatziak aldera, lasai zegoen Youness telebistari begira, eta hara non sumatu zuen zaparrada moduko bat, sabaia jo eta jo, errepika bizian. Hamaiketan ere euriak bere horretan jarraitzen zuen, indar berberaz, eta Younessek oihuak entzun zituen, eta zer zen ez zekien hots bat ere bai: tatatata edo halako zerbait. Askoz geroago esango zuenez, animalia erraldoi bat zirudien, ibili mantsoan dena zapaltzen ari zena. Youness atarira irten zen: iluntasun betean, beheko etxeak hondor- ratzen ari zirela ikusi zuen. Ibaiak gainezka egin zuen, eta dena urez beteta zegoen. Oihuak, gauaren beltzean, izugarriak ziren.

Youness barrura sartu zen; gurasoak eta anaia ohartarazi behar zituen. Ia jantzi gabe, ezer ere hartu gabe, etxetik irten eta muinoan gora joan ziren lasterka, lekurik garaienera. Beste batzuk ere bazebiltzan inguruan, lasterka eta oihuka, laguntza eske. Beldurrak jota eta blai zeuden denak, hotzak, eta saiatu ziren zuhaitz azpietan babesa hartzen, baina alferrik zen: urak berdin-berdin aurkitzen



Goizaldean atertu egin zuen, eta ordu batzuk geroago, Youness eta gurasoak etxera itzuli ziren: dena zen hondakin hutsa, lokatzez eta harriz betea; eta arropak, altzariak eta etxeko gainerako gauza guztiak, urak suntsitu eta eramana. Saiatu ziren lekutxo bat egiten, atsedean hartzeko; baina ezin izan zuten. Apurka-apurka, Youness egoeraz jabetzen joan zen: orain etxerik ere ez zeukaten, eta ordutik aurrera, bizimodua betiko aldatuko zitzaien. Okerrena, alabaina, iristeke zegoen: handik gutxira jakin zuenez, Ali, bere lagunik minena, familia osoarekin batera hil egin zen, etxeko sabaia gainera erorita.

*Gau hura daukat behin eta berriz gogoan. Ezin dut burutik kendu. Orduko hura sufritzen ari naiz etengabe.*

*Zer darabilzu buruan?*

*Errudun sentitzen naiz. Ez nuen ezer egin besteei laguntzeko, ez nintzen haiei laguntzeko gauza izan. Batez ere nire lagunari; oso lagun mina zen, eta ezin izan nuen ezer egin.*

*Zergatik ezin izan zenion lagundu?*

*Esan nizun; heriotzaren beldur nintzen. Ez nuen ama kezkatu nahi... Ez dakit, baina badakit besteei laguntzeko zerbait*

*gehiago egin behar nukeela, begira egon baino zerbait gehiago.*

Goizeko hamarrak aldean, ura jaisten hasi zen: bazter guztiak lokatzez beteta zeuden; zaborra eta gauza-zatiak nonahi, animalia hilak ere bai... Estatuko sorospen-zerbitzuetakoak eguerdi aldera iritsi ziren: hildako guztietatik bakar bat bera ere salbatzeko beranduegi. Ordurako, ez zegoen egiteko askorik: eraikin-hondarrak nahasi, gorpuak atera...; besterik ez. Arratsalde hartan, tapakiz eta plastikoz ahal zen moduan egindako babesleku batean lo egiten saiatu ziren Youness eta senideak. Youness leher eginda zegoen, jota, baina ezin ahantz zitzakeen lagun hil berria, galdu berria zuen etxea, erabat hondatuta geratutako landa, betiko galdua zuen etorkizuna...

*Zure ustez, zergatik gertatu zen hura?*

*Klimagatik, izugarri aldatu da-eta globalizazioaren ondorioz. Auto gehiegi dago, eta autobus gehiegi, jende gehiegi, industria gehiegi; eta orduan, klima aldatu da, eta horrelako gauzak gertatzen dira: ni etxerik gabe geratzea, eta lurrik gabe, lagunik gabe...*

Gau hartan laguntzako beste talde batzuk iritsi ziren, karpak eta janaria eramatera.

Tartean, Naciri, *Association de Soutien aux Espaces Santé Jeunes* elkarteko lehendakari den 24 urteko gaztea. Rabaten bizi da Naciri, eta goizalde hartan, elkarteko kide batzuen deia jaso zuen, laguntza eske. Ordu gutxi batzuen buruan, elkarteko 40 boluntario inguru hantxe bertan zeuden:

*Iritsi ginenean ezin sinets genezakeen zer ikusten ari ginen: dena urez beteta zegoen. Lehenbiziko gauza txalupak hartzea izan zen: Herri Babeserako Zerbitzuko txalupak hartu eta inguruak miatzea, oraindik etxeko teilatuetan harrapatuta zeudenak salbatzen saiatzeko.*

Goiz hartan bertan, elkarteko tokiko arduraduna aurkitu zuten: harrapatuta geratu zen, lokatzetan hondoratzen ari zen gizon bati lagundu nahian. Lokatz-putzu haiek ziren, hain zuzen ere, arriskurik okerrenak: azal-azalean ur-geruza mehe batez estalita zeuden, eta inork oharkabean halakoren bat zapalduz gero, bertan gera zitekeen, atera ezinda. Haiek atera nahian zebilen Naciri, hain zuzen; alferrik, ordea. Zenbait minutu luze sokei tiraka ibili ondoren, haiek onik ateratzea lortu zuten azkenean. Bi ordu geroago, gazte arduraduna atzera herrira eraman zutenean, zoritxar baten berri jakin zuten: ama eta ahizpa itota hil zitzaizkion.

*Baina okerrena bigarren egunean gertatu zitzaigun: familia bat ikusi genuen etxeko teilatuan irauteko eginahalak eta bi egiten. Ikusi gintuzten, eta oihuka hasi zitzaizkigun, laguntzera joan gintezan. Hurbiltzen ari ginela, alarma entzun genuen irratiz: bigarren uholde bat zetorrela, eta itzultzeko lehenbailehen. Saiatu ginen haiengana iristen, laguntzeko; baina ura bazetorrela ikusi eta alde egin behar izan genuen.*

*Eta erabaki horrekin ados al zeunden zu?*

*Beste aukerarik ere ez geneukan. Han geratuz gero, geu ere hilko ginatke. Baina izugarria izan zen. Sekulako tristura geratu zitzaidan. Denbora luzean ezin izan nuen lorik egin.*

Elkarteko gazteek hiru egunean gogor egin zuten lan: hiru egun eta hiru gau izan ziren. Orduan ezagutu zituen Younessek. Egun batzuk geroago, aitak erabaki zuenean familia osoa hartu eta anaia nagusiarenera eramatea, Rabatera, haiek lagundu zieten. Alde egin zuten, beraz, eta dena utzi. Beste askok ere bai. Eskualdean, orain, etxe, kale eta eskola suntsitu asko dago, eta lurrak ahalegin handiak beharko ditu berriro ezer emateko. Datu zehatzik ez dago, baina egindako kalkulu

arabera, biztanleen % 40 oraindik ez da itzuli, eta askok ez du itzultzeko asmorik ere.

*Itzuliko al zara zure herrira?*

*Ez, inoiz ez.*

*Zergatik?*

*Arrazoi askorengatik. Hura guztia ahaztu nahian nabil. Etorkizunean pentsatu nahi dut. Ez dut uste gutako inor itzuliko denik. Han dagoeneko ez daukagu ezer, eta ez dugu beste ezer egin nahi. Eta nire lagunik minena hil egin zen; hortaz, zertarako itzuliko naiz. Nahiago dut buruan une goxoak gorde: elkarrekin emandako uneak...*

Orain, ASESJ elkarteari esker, sei hilabeteko ikastaro bat egiten dabil Youness, telefono bidezko laguntza-zentro batean deiei erantzuten ikasteko. Bitartean, eraikuntza-lanetan dihardu, laguntzaile: perrailak eta harriak eta adreiluak hara-hona eramatea du lana, eta 50 dirham ordaintzen dizkiote (Estatu Batuetako 6 dolar inguru), zazpi edo zortzi orduko lanaldiko.

*Nik ez nuke hau egiten egon beharko. Titulu bat badaukat. Lan hau ez da nire benetako lana.*

Hori esan du, ia lotsatuta.

*Baina orain hau egin beharra daukat, ataka honetatik nolabait atera eta familiakoei laguntzeko, hura guztia ahaztu eta berriro bizitzari heltzeko.*

Youness triste eta nahasita dago. Agian egunen batean Ingalaterrara joateko aukera izango omen du, betidanik oso gogoko izan du eta. Ingalaterrak abantaila handiak omen ditu han bizi nahi duen jendearentzat: titulu bat edukiz gero, adibidez, berehala lortzen omen da han lan bat. Bitartean, ikasten eta lanean jarraitzen du, eta ondo pasatzen saiatzen da. Neska-laguna ere badu orain, baina oraingoz ez omen da ezer serioa: berriketan jardun eta ondo pasatzeko lagun bat.

*Badakizu, gazteak...*

*Baina zuk 22 urte dituzu.*

Younessek barre egin du, lehenbizikoz; gero, bere buruari aitortu dio:

*Egia da, bai, 22 urte badituz dagoeneko. Arin ibili beharko dut, etorkizunik izan nahi badut.*

# MIGRAZIOA

## TENPERATURA GORANTZ ETA POPULAZIOAK LEKUALDATZE BETEAN

Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu Arteko Taldeak dagoeneko 1990erako ohartarazi zuen klima-aldaketak populazioetan izango zuen ondorioak larriena jendea lekualdatzea izango zela, ziur asko.<sup>1</sup> Txosten hartan, *milioika* lagun aipatzen zituzten. Gaur egun ere funtsezko gaietako bat da migrazioa, klima-aldaketaren eragina denean aztergai; baina kalkuluak egitea zaila da, datu askorik ez dagoelako, batetik, eta bestetik, migrazio-gaiak beti direlako konplexuak, batik bat borondatzeko migrazioa eta migrazio behartua bereizteari dagokionez. Migrazioen Nazioarteko Erakundeak (MNE) adierazi duenez, klima-aldaketaren ondoriozko biztanleria-lekualdatzeari buruzko proiektzioak 25 milioi lagunetik 1.000 milioi lagunera bitartekoak dira.<sup>2</sup> Alde handia dago, bistan da, eta alde horiek bi alderdiren baitan daude, funtsean: batetik, Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu Arteko Taldearen zer agertoki hartzen den oinarri, eta bestetik, zer *migrazio* definizio erabiltzen den. Edonola ere, garbi dago erabat espero izatekoa dela biztanleen lekualdatzea areagotzea, eta asko, klima-aldaketaren ondorioz.

Zerk bultzatzen du jendea migratzera? Ingurumen-faktoreei dagokionez, bi motatakoak bereizten dira, funtsean: bat-batean gertatu eta eragin zuzena duten jazoerak –hala nola urakanak, uholdeak edo lehorteak–; eta pixkanakakoak, edo bestela esanda, ingurua apurka-apurka aldatzea –esaterako, itsas maila igoetzea–.<sup>3</sup> Ingurumen-aldaketa guztiak ezin lot litezke zuzen-zuzenean klima-aldaketari; hori egia da. Baina uste da klima aldatzeak indar handiagokoak eta sarriagoak bihurtuko dituela lehen aipatutako bi faktore motak. Bestalde, bi migrazio-eragile mota horiek ia erabat dikotomikotzat har daitezkeenez, haien ezaugarriak, haiekiko erantzunak eta, beraz, haien ondorioak oso desberdinak dira.

Zenbait jazoera gertatu izana bereiztea eta jakitea erraza da: urakanak, uholdeak... Eta hein batean, aurrez ere jakin daiteke noiz gertatuko diren. Hori jakinda, noski, haien ondorioak arintzeko prozesuak abian jar litezke, bai eta haietara moldatzeko estrategia goiztiarrak taxutu ere. Bestalde, guztiz ezinezkoa da aurrez jakitea klima-aldaketaren ondorioz non edo noiz gertatuko diren datorren mendean natura-hondamendiak eta zer-nolako ondorioak izango dituzten haiek. Egoera zoritxarrekoa gertatuz gero, gerta liteke ondorioak erabat beltzak izatea eta biztanle-andanak lekuz aldatu behar izatea, agian aldi baterako, agian betiko edo urte-mordo baterako.

Klima-aldaketaren ondorioz migratzera jo beharko duten biztanle asko gaur egun garapen bidean diren herrialdeetakoak dira, ziur asko. Baina horrek ez du esan nahi ziur asko behartsuenek eta zaurgarrienek migratuko dutenik, migrazioa oso garestia baita, moldatzeko estrategia moduan. Eskuarki, migratzen dutenek kapital finantzarioa eta gizarte-sareak eduki behar izaten dituzte iritsiko diren lekuan. Gainera, migrazioak erabat nahasten du bai bizitza kulturala bai politikoa. Horrenbestez, klima-aldaketaren ondorioz gertatuko den migrazio horretan alderdi batek baino gehiagok eragingo du, eta ez soilik benetan gertatutako klima-aldaketak berak: hor izango dira, halaber, faktore ekonomikoak, kulturalak, politikoak eta sozialak.<sup>4</sup>

Horrek esan nahi du klima-aldaketak eragindako populazio-lekualdatzeari erantzun nahiko zaionean beste alderdi batzuk ere hartu beharko direla kontuan. Esate baterako, generoa, bai migrazioa aldi baterakoa denean, bai epe luzerako edo betiko denean. Lekualdatzen diren emakumezkoak gizonezkoak baino zaurgarriagoak dira, maiz

askotan gizonezkoek baino estatus txikiagoa dutelako, eta horregatik, gerta liteke haien beharrek gizonezkoen baino arreta edo laguntza gutxiago jasotzea.

Bizimodu berri bat eraiki beharra dagoenean, eta behin betiko migratu ondoren, gerta liteke lekualdatu diren emakumezkoen estatus sozioekonomikoa kaltetua gertatzea, arrazoi nagusi batengatik: sarritan, enplegu informala sektorean bukatzen dute emakumezkoek lanean, edo neskame eta etxe garbitzen, eta gehienetan, lan-egoera eskas eta badaezpadakoa. Osasun-arazoak izateko arriskua ere badute migratu duten emakumezkoek, gizarte-zerbitzuetara jotzeko zailtasunak izan ohi dituztelako, oro har, eta ugalketa-osasunarekin lotutakoetara jotzekoa, zehazki, zenbait oztupo direla tarteko: hizkuntza, legeak, dirua... Segurtasuna ere kontuan izan beharreko beste alderdi bat da, migratzen duten emakumezkoak errazago izan daitezkeelako etxeko edo familiako indarkeriaren biktima, eta abusuen biktima ere bai.<sup>5</sup>

Migrazioak erronkak dakartza, bai; baina gogoan izan behar da, halaber, datorren mendean klima-aldaketara moldatzeko nahitaezko modu bat izango dela biztanle askorentzat. Giza historian beti gertatu izan da migrazioa: gizakia betidanik baliatu izan da lekualdatzeaz, moldatzeko estrategia moduan. Beraz, garrantzi handikoa izango da migratu dutenen arazoei adi egotea, emakumezkoenei eta gazteenei barne, haiek lekuz aldatu baino lehen, bitartean eta gero.



# Fatima

EKINTZAILE ETA ANTOLATZAILE NIGERIARRA:  
EGURRA UTZI ETA TELEFONO MUGIKOR BAT HARTZEA

**F**atimak inoiz ez zuen zegoen lekuan egon nahi. Anai-arreba nagusiak eskolara zihoazela ikusten zuenean, negarrez hasten zen, haiekin batera joan nahi zuela eta. Baina halako batean gurasoek eskolara eraman nahi izan zutenean, orduan ere negarrez hasi zen, han bakarrik ez zuela geratu nahi. Fatimak beti izan zuen irudipena gauzak inoiz ez zirela beharko luketen bezalakoxeak eta haratago bilatu behar zela.

Fatima 1986an jaio zen, Josen, Nigeriako erdialdean dagoen milioi-erdi biztanleko hirian. Aita, Abubakar, meatze-korporazio bateko goiko langileetako bat zen, eta etxe baten eta auto baten jabe, Fatimaren ama Aisharekin izandako hamar seme-alabak mantentzeko gai bazen. Emakume jaierratsua zen Aisha, seme-alabez eta etxeaz erabat arduratua, eta zeukan asti urria josten eta iruten ematen zuen, etxeko aurrekontua osatzeko.

Txikitan, anai-arrebez inguratuta zegoen Fatima beti, eta bizimodu samur samarra zuen. Ordubetez ibili behar izaten zuen eskolara joan eta etxera itzultzeko, baina gero, etxera iritsitakoan, beti zegoen zer jan, eta jateko goxoa

gainera. Lo-kuluxka egin ondoren, etxeko lanetan lagundu behar izaten zuen, eta bi egunetik behin, uniforme garbitu ere bai. Fatimak eta anai-arrebek gauza bat ikasi behar zuten, garbi: jolastera joan aurretik, nor bere eginkizunez arduratzen.

Fatima tribu txiki batekoa da: egbira tribuko. Urtean behin, familia osoa *herrira* joaten zen; berez, haietako bat bera ere ez zen Toton jaioa, baina aitona-amonak hangoak zituzten. Leku lasaia zen Toto, eta beren tradizioak eza-gutzeko balio zien. Han ikasi zuen Fatimak, adibidez, errespetua zor zaiela nagusiei, eta ez dela nahikoa haiei gur egitea, belaunikatu ere egin behar dela haien aurrean. Eta Fatimak horrela jokatzeko, baina zergatia jakin gabe. Eta horixe galdetzen zion bere buruari: zergatik? Bere baitarako gauzen zergatiaz galdezka zegoen Fatima denbora osoan. Jakin nahi luke, esaterako, zergatik ez zuen inoiz ikusi emakumerik auto bat gidatzen, edo geroago, telebistan eta irratan emakumezkoen eskubi-deen alde agertzen zirenak zergatik ziren denak gizonezko. Fatimak hamaika aldiz entzun izan zien etxekoei afrikar esaera zahar hura: «zapata

darabilenak daki non estutzen duen gehien»; baina arrazoiren batengatik, hura ez zen emakumezkoentzat erabiltzen.

Nerabe zela, telebista-saio batek interes bizia sortu zion Fatimari. *Youth Prospectives* izeneko saio hura hiriko kanal batean ematen zuten, eta Kingsley Bangwell izeneko gizon bat izaten zen aurkezle. Era askotako gaiak aztertzen zituzten: osasun-gaiak, GIBa, ingurumena, gazteen parte-hartzea, enpresa-ekimena... Fatima amesten hasi zen: egunen batean gizon hura ikustera joango zen. Horregatik, Kingsley bere eskolara joan eta galdetu zienean ea nork nahi zuen lagundu komunitatean, Fatimak seinale moduan hartu zuen. Hurrengo egunean, 16 urte beteak zituela, boluntario sartu zen *Young Stars* fundazioan.

*Ez sinestekoa izan zen. Hainbeste testu zegoen irakurtzeko, hainbeste gauza interesgarri ikasteko! Gazteen parte-hartzean sartzen hasi nintzen, gobernu-gaietan, ekonomiaren aldetik nor bere buruaren jabe izateko kontuetan, garapen iraunkorrek lotutakoetan...*

*Young Stars* fundazioan, ordenagailua ikusi zuen lehen aldiz Fatimak, eta hura erabiltzen irakatsi zioten. Kremak eta xaboiak egiten ere ikasi zuen, eta kandelak egiten eta arropak tindatzen ere bai; neska langabeei irakasteko jakin behar zituen. Hasieran ez zuen konfiantza askorik bere buruan, baina apurka-apurka, horretan ere sendotu zen. Ikaragarri gustatzen zitzaion sentsazio hura, garrantzizko zerbaitegiten ari izatekoa: dagoeneko ez zen behatzaile hutsa; ekintzan zebilen. Egun haietan, alabaina, ustekabeko batek Fatimaren bizitza goitik beheara aldatu zuen: amak buruko isuri bat izan eta paralizatuta geratu zen. Hil gutxi batzuk geroago, bigarren isuri batek hil egin zuen.

"... neure buruari eta mundu osoari kalte egiten ari nintzaionik ere ez nekien: zuhaitzak botatzearen kaltea, CO<sub>2</sub> isuriarena..."

*Neska izatea beti izan zait atsegin. Hain gara inozoak! Hain da dena erraza! Baina ama hil zenean, ardura izugarria sumatu nuen neure gain, anai-arrebez arduratu behar izan bainuen hura hiltzeaz batera. Orduan jakin nuen dagoeneko ez nintzela umea.*

Inguruko guztiak behe jo zuela iruditu zitzaion Fatimari. Zertarako jarraitu? Horixe galdetzen zion bere buruari. «Amak bizimodu ona izan zuen, eta Kreatzaileak eraman egin baldin badu, arrazoiren bat izango du, ziur»; hori pentsatzeak arintzen zion bihotza. Bere burua prest ikusitakoan, amari buruzko artikulu bat idatzi zuen; izenburua, *Ez inoiz etsi*. Amaren bizitza ikasbide gertatu bazitzaion, horixe ikasi zuen hartatik, eta argitaratzeko asmotan idatzitako lehenbiziko gauza izan zen, halaber. Irakurri zutenei gustatu, eta aurrera jarrai zezan zirikatatu zuten. Orduan erabaki zuen: eleberri bat idatziko zuen. Bera bezalako nesken benetako bizitzako istorioak kontatu nahi zituen, eta halaxe hasi zen idazten *The Face of Africa* (laster bukatuko omen du), eta geroago, *The Amazon of Elkira*. Eta beste erabaki bat ere hartu zuen: betidanik hala nahi izan bazuen ere, ez zen sendagile izango, sekula ez zuelako lortuko gaixo bat ikusi eta amaz ez oroitzea.

Fatimak amaituta zeuzkan ikasketak, baina ezin izan zuen unibertsitatean sartu, familiak nahikoa diru ez zeukalako. Komunitate-lanetan jarraitzen zuen, eta bide horretatik British Council-eko jendea ezagutu zuen. Zenbait hila-bete geroago, gazte nigerriarrak eta ingelesak trukatzeko *Global Exchange* programan parte hartzeko hautatu zuten, eta horrela, hiru hila-bete eman zituen Birminghamen (Ingalaterra).

*Sekula ez nintzen etxetik hain urrun egon, eta mira nuen. Han dena oso desberdina zen. Hasteko, ordena eta puntualtasuna; izugarri harritu ninduen zenbaterainoko ordena eta puntualtasuna dagoen denean: bilerak, autobusak...*

Janaria, aldiz, motela iruditu zitzaion, geza; eta batik bat, gazteen jokabideak eragin zion zirrara: nola ibiltzen ziren kalean, edaten eta erretzen, batere «lotsarik» gabe jantzita, eta nola tratatzen zituzten nagusiak, haiek eta gazteak parekoak balira bezala. Horregatik-edo, bere herria lehen baino gehiago estimatzen hasi zen Fatima. «Pobrea da, bai; baina zenbait balio moral han badaude oraindik, eta ez lirarete sekula galdu behar»; horixe esaten zuen berekiko. Oso lanpetuta ibiltzen zen: etxerik gabeko jendearentzako zentro batean aritzen zen, emakumeei laguntzen, eta GIBari nahiz HIESari aurrea hartzeko kanpainetan ere bai. Orduan ohartu zen: Ingalaterra herrialde aberatsa izanagatik, han ere txakurrak oinutsik.

Atzera Josera itzulitakoan, *Spring of Life* gobernuz kanpoko erakundean hasi zen lanean Fatima, GIBa edo HIESa zutenei laguntzen eta azaltzen borrokan jarraitu behar zutela eta, zainduz gero, luze bizi zitezkeela, gaixotasun hura eduki arren. Azkenean, YARAC taldean sartu zen (*Youth Adolescent Reflection and Action Center*), eta GKE hartan, bere proiektua aurrera eramaten

utzi zioten hasieratik: *Young Women of Vision*. Hainbat gai aztertzeko mintegiak antolatzen zituen han, eta antolatzen ditu oraindik: lehena sexu bidez kutsatzen diren gaixotasunei aurrea hartzeari eta ugalketa-osasunari buruzkoa izan zen.

*Hemengo oso neska musulman gutxi egingo luke nik egiten dudana. Hemengo neskak pasiboagoak dira. Gure kulturaren parte da hori: guk etxeoandre izan behar dugu, eta ez besterik; hori espero da guregandik. Baina horrexegatik, asko dago egiteke.*

Fatimak 19 urte zituen, eta ikasteko asmorik batere ez. Izan ere, ari zen, ari, gustuko gauzak egiten; orduan, zertarako galdu denbora? Egun batean, baina, ikasi beharra zeukala ohartu zen: «Kontua ez da bizimoduak aldatu nahi izatea, hori baino gehiago baizik: bizimoduak nola aldarazi jakitea da kontua. Eta horretarako, unibertsitate-ikasketak behar nituen».

Sosik ez zeukan, baina aurkeztu egin zen, hala ere. Eta unibertsitatean onartu zutenean, YARACek dirua aurreratu zion. Komunitate-langile moduan egindako jardueren ildotik, psikologia ikastea erabaki zuen. Orain hirugarren mailan dago, YARACen laguntzen jarraitzen du, eta *Action Aid* taldean, berriz, gosearen kontra eta elikadura-eskubidearen aldeko kanpainetan parte hartzen du. Beste sei edo zazpi proiektutan ere badabil, eta ez dauka



astirik –sekula ez zuen izan– mutil-lagunetarako. Iaz, baina, *Global Exchange* programan aritu izandakoen bilera batean klima-aldaketaren berri aurrenekoz izan zuenean, zerbait egin beharra zeukala sentitu zuen, irmo.

*Sekulako ustekabea izan zen. Nik egurra erabiltzen dut janaria prestatzeko, eta horrela neure buruari eta mundu osoari kalte egiten ari nintzaionik ere ez nekien: zuhaitzak botatzearen kaltea, CO<sub>2</sub> isuriena... Potoak eta botilak edonora botatzen nituen, eta gauza horiek guk baino luzeago iraungo dute eta hurrengo belaunaldikoei kalte itzela egingo diete.*

Janaria prestatzeko oraindik ere egurra erabiltzen du Fatimak, beste aukerarik ez duelako; baina ingurumenaren aldeko erakunde batek sustatzen duen sukalde berezi bat erostekotan da, askoz gutxiago kontsumitzen eta isurtzen omen du eta. Ura ere arazo da Fatimaren hirian, eta hori ere kezka bihurtu zitzaion laster, zuzenean eragiten zion eta, gainera. Duela hamar urte baino gehiago, Fatimaren etxea eta auzoa urik gabe geratu ziren; geroago, Fatimak ura hartzeko erabiltzen zuen putzua ere agortu egin zen, eta beste bat egin ere egin zuten arren, hango ura ez da edateko ona. Ez da bakarra: azpiegiturarik eza dela tarteko, afrikar gehienek beti izan dute ura lortzeko

arazo handia. Eta azken urteotan arazoa larriagotu egin da, gainera, zuhaitzak inolako bereizkuntzarik gabe botatzeak eta klima-aldaketaren ondoriozko lehortee okerragotu egin dute-eta egoera.

Gai hori buruan zerabilela, *WaterAide*koen programa baten berri jakin zuen Fatimak: Estatu Batuetako mila dolar eskaintzen zizkien teknologia berriak erabiliz urari eta saneamenduari buruzko proiektu bat aurrera eramango zuten gazteei. Baina Fatimak dagoeneko 22 urte bazituen, eta programarako zaharregia zen; hortaz, 17 urteko bere ahizpa Aminarekin elkartu, eta ideia aurkeztu zuten: zenbait komunitatetako gazteen talde bat osatu ondoren, eta Nigerian telefono finkoak inoiz ez dabiltzala-eta hirietako ia herritar guztiek mugikor bat badutenez, urik eta saneamendurik ezak nahiz haiek gaizki erabiltzeak eragiten dituen arazoak filmatuko zituzten mugikorak erabiliz; gero, 15 minutuko dokumental bat editatuko zuten, eta azkenik, dokumentala ikastetxei helaraziko zieten, haietan eztabaidatu, taldeka gaia landu eta gobernuari irtenbideak eskatzeko. Onartu egin zieten proposamena, eta laster hasiko dira egiten.

### *Zergatik ura?*

*Orain dela hamar urtetik etxean urik ez daukadalako, jende guztia horretaz kexu*

*delako, eta urik eza ezbehar askoren sorburua delako: familiek ezin dute janari osasungarria prestatu, ez bizimodu osasungarria izan, ez baratzeak eta animaliak zaindu; emakumezkoek ibili eta ibili egin behar dute, ur bila joateko; neskek urik ez badaukate ezin garbi dezakete uniformeak, eta ezin joan daitezke eskolara orduan, jendeak barre egiten du-eta soinean uniforme zikina baduzu. Denbora osoan behar dugu ura. Hain da garrantzitsua, eta batzuetan hain gutxi arduratzen gara hartaz.*

### *Eta zergatik sentitzen duzu gauza horiek egiteko beharra?*

*Hasieran, jakin-min hutsagatik: jakin nahi nuen. Orain, berriz, zerbait ona egitearen poza da, batez ere. Eta izugarri gustatzen zait hainbeste jende ezagutzea, eta noski, nire curriculumerako lagungarri da, gainera. Hala esan du Fatimak, barrez.*

Baina garrantzitsuena, Fatimaren esanetan, beste zerbait da: inoiz ez dakizula noren bizi-modua aldatuko den zuk egindako gauza txikiei esker. Horrek bultzatzen duela jarraitzera. Eta beste proiektu bat eta beste bat aipatzen ditu; burua lan eta lan dabilkio, etengabe, proiektuak pentsatu eta pentsatu, etorkizuna irudikatu eta irudikatu.

### *Orduan, zertan ikusten duzu zure burua hogeitau urte barru?*

*Psikologoa izango naiz, emazte, oso ama ona, kukuak jotzen badit idazle, eta ezbaierik gabe, ziur, garapen-eragile. Agian, enpresa-ekintzaile horietako bat izango naiz eta kosmetikoak egingo ditut... Orain egiten dudana baino askoz gehiago egiteko gai izan beharko nuke. Badakit bizimoduak aldatzeko ahal dudan guztia egiten dudala, eta hogeitau urte barru gauza bera baina eskala handiagoan egiten ikusten dut nire burua. Gorroto dut jendea gabeziengatik sufritzen ikustea: janaririk eza, osasun-laguntzarik eza, beziketarik eza, urik eza... Hori guztia eduki egin behar lukete.*

Eta inguruetako emakume baten istorioa kontatu digu: semea gaixo egon arren, ezin izan zuen sendagilearengana eramanez, lehorteak uzta hondatu ziolako eta, hortaz, taxi-motoa ordaintzeko hogeitau zentaboak ez zeuzkalako. Dirua lortu eta sendagilearengana eramanez ahal izan zuenerako, mutikoa azkenetan zegoen. Ama semearen gorpua besoetan hartuta itzuli zen etxera.

*2009an gertatzen ari da hori, gure hirietan. Zergatik hil behar du mutiko batek osasun-laguntzarik, jatekorik eta ur garbirik ez duela-eta? Zer egingo dugu? Zertan ari gara?*

## POBREZIA

### KLIMA-ALDAKETA ETA MILURTEKOKO GARAPEN HELBURUAK

Klima-aldaketaren ondorioak larriagoak izango dira behartsuen bizimoduan. Egia da, bai, klima-aldaketak ez dituela ondorio berberak izango munduko bazter guztietan eta zenbait leku geografikotan beste batzuetan baino bortitzago eragingo duela; baina erasango duen leku horietan, askoz zaurgarriagoak izango dira behartsuak, haiek baitute gaitzen kapital ekonomiko eta sozial funtsezkoa lortzea, hala nola heziketa, aurrezki pribatuak eta higikortasuna; eta haiek gabe, nekez moldatuko dira ustez badatozkigun ondorio eta aldaketa horietara.

Klima-aldaketak, noski, ez du berdin eragingo behartsu horien guztien bizimoduan, eta denek ere ez dute izango gertatzekoak diren aldaketekiko erresilientzia-maila bera, jakina: zenbat jende bizi den pobrezian klima-aldaketak ondorioak izango dituen lekuetako bakoitzean, hainbeste bizimodu nahasi edo aldatuko dira. Hirietan, behartsuek askoz errazago izango dituzte osasun-arazo hauek: bero-boladak areagotzek eta hirietako airearen kalitatea eskasteak eragindakoak; malaria, dengea, kolera eta beste gaixotasun kutsakor batzuk; eta uholdeak edo lehortek gertatuz gero, karraskarien bidez kutsatzen diren infekzioak.<sup>1</sup> Landa-eremuei dagokienez, kontuan izan behar da eskala txikiko arrantza eta nekazaritza arriskuan daudela, aurreikuspenen arabera aldatu egingo baitira prezipitazioak, urtaro lehor eta hezea, eta tenperatura; eta hortaz, landako langile behartsuek –gehienak sektore informalean aritzen direnez– errazago izango dituzte tenperatura altuagoen eta bero-boladen ondoriozko osasun-arazoak, sarritan ordu asko ematen baitituzte instalazio eskasetan sartuta, aireztapenik eta osasun-baldintza egokirik gabe. Bestalde, klima-aldaketaren ondorioz jende asko lekualdatuko denez –eta eskuarki hirietarantz jotzen da halakoetan–, litekeena da lekualdatutako behartsuek lana aurkitzeko zailtasunak izatea.

Herrialde garatuen aldean, garapen bidean diren herrialde gehienek gaitasun txikiagoa dute klima-aldaketari modu proaktiboan erantzuteko kapital- eta giza baliabideak jartzeko. Ereku tropikal eta subtropikaletan dauden herrialdeak dira zaurgarrienak, eta horrek esan nahi du ustez badatozkigun ondoriorik larrienetako batzuk gutxien prestatuta dauden herrialdeetan pilatuko direla.<sup>2</sup> Nolanahi ere, gaitasun altuko gizarteak eta komunitateak ere zaurgarriak dira.<sup>3</sup>

Behartsuen artean ere bada alderik, eta emakumezkoek gizonezkoek baino ondorio larriagoei aurre egin beharko dietela uste da, gizonen aldean estatus sozioekonomiko txikiagoa dutelako, eta bizibidea ateratzearen aldetik naturalibaliabideen oso mende daudelako. Eta emakumezkoen artean ere batzuek pairatuko dute gehien: familiaren buru senargabeak eta ondasun urrikoak direnak.<sup>4</sup> Munduan pobre direnen bi heren eta nekazaritza-langileen % 70-80 inguru emakumezkoa da. Gainera, emakumezkoek denbora gutxiago ematen dutenez leku publikoetan, ez daukate gizonezkoek adinako prestakuntza bat-bateko hondamendiei aurre egiteko, eta horregatik, hiltzen diren edo zauriak izaten dituzten emakumezkoen kopurua neurritz kanpokoa da sarritan.<sup>5</sup> Hori guztia dela eta, klima-aldaketaren ondorioetara moldatzeko eta haiek arintzeko estrategiak taxutuko direnean, tartean sartu behar dira, besteak beste, emakumei eta neskei bereziki laguntzekoak eta haiek beren buruaren jabe bihurtzekoak, eta horri dagokionez kontuan izan, gainera, norberaren jabe izate horretan eragin itzela duela ugalketa-osasunak.

Munduko populazioan, gaur egun, 25 urtetik beherakoek belaunaldia ikaragarri ugaria da. Hortaz, erabat premiazkoa da gazteak datozkigun ondorioei aurre egiteko prestatzea, batetik, eta gainera, orain bertan bidean sartzea, beren burua eta komunitateak presta ditzaten. Leku askotan, gazte

behartsuek ez dute behar besteko heziketarik, ez behar besteko elikadurarik, ez behar besteko osasun-laguntzarik (ugalketa-osasunarekin lotutakoa barne), ezta behar besteko gizarte-sare egonkorrik ere, hala nola hurbileko familia; eta horrek are zaurgarriago bihurtzen ditu. Bestalde, gaur egungo gazteen belaunaldia inoiz baino hiritarragoa da, eta hiri askotan, auzo eskasetako bizilagunen proportzio handi bat gazteak dira.<sup>6</sup> Ahalegin egokiak eginez gero, hirietako gazteak izan litezke gai klima-aldaketaren ondorioak arindu eta haietara moldatu behar horretan sendo jokatzen eta parte hartzen, hiriek aukera ugari ematen baitute, bai bizibideen aldetik bai bizimodu osasungarrien aldetik. Horretarako, baina, erabat ezinbestekoa da hirietako gazteek zer premia dituzten adi egotea.

Mundu-mailan lortzen ez baldin bada orain arte hitzartutako garapen-planak betetzeko moduko erritmoan aurrera egitea –Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH), adibidez–, klima-aldaketak behar baino ondorio larriagoak izan ditzake garapen bidean dauden herrialdeetan eta jende behartsuaren bizimoduan, pobrezia areagotu egiten du-eta pertsonen eta herrialdeen zaurgarritasuna.<sup>7</sup> Gainera, klima-aldaketaren ondorioetara moldatzerik eta haiek arintzerik lortzen ez badugu, pobrezia areagotu egingo da dagoeneko pobre badiren herrialdeetan, eta horrek bi ondorio nagusi izango ditu epe luzera. Bata, gizarte-zerbitzuak murriztea, eta horien artean, batik bat, oinarriko osasun-zerbitzuak (ugalketa-osasuneko barne). Bestea, mundu osoak sexu- eta ugalketa-osasunerako zerbitzuak izan ditzan aurrera egindako bidean atzera egitea. Eta MGH 5en arabera, hain zuzen, azken horixe da ama-osasunari dagokionez lortu beharreko bigarren helburua. Zalantzarik gabe, gaur egun arriskua badago MGH lortzeko eginahalean aurrera egindako asko bidean galtzeko, klima-aldaketaren ondorioz.<sup>8</sup>

# Mugan: gazteak eta klima-aldaketa

**T**xosten honetako zazpi istorioek argi eta garbi erakusten digute datozen hamarkadetan zer gerta dakiekeen milioika gazteri, baldin eta klima-aldaketaren eragina arintzen ez bada eta haren sorburuen kontra egiten ez bada. Ziur asko, klima-aldaketaren ondorioak okerragoak izango dira pobrezian bizi diren gazteentzat, eta oraintxe dugu aukera esku hartzeko: gaur egun klima-aldaketaren mugan dauden gazteen premiak zenbaterainoko arretaz zainduko ditugun, horren arabera egingo dute geroan hara edo hona haien bizitzek.

Marjorie, Mariama, Messias, Kilom, Mandisa, Youness eta Fatimari buruzko txosten sakon horietan garbi ikusi dugu klima-aldaketak aldarazi egiten dituela gazteen pentsamoldeak, ametsak eta ekintzak. Mundu osoko gazteek klima-aldaketaz dihardute, hasi Amazoniako oihan sarrietan, Nigerreko eskualde lehorretan edo Ozeano Bareko atoloi eta uharteetan, eta buka 2009ko abenduan Kopenhagen egin zen Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Batzarra prestatzeko eztabaida maila han-

dikoetan. Klima-aldaketak dakartzan erronkak gazteen gain daude, hein handi batean, eta oso beharrezkoa da, hortaz, gazteei behar besteko laguntza eta indarra ematea, beraientzat nahiz etortzeke dauden belaunaldientzat Lurreko aberastasuna eta dibertsitatea babestu nahian egiten ari diren ahalegin horretan.

Klima-aldaketarekiko zaurgarrienak diren gizon-emakumeak garapen bidean diren herrial-

deetan bizi dira, eta hortaz, pobrezia hiltzea funtsezkoa da, baldin eta gazteei beharrezko baliabide guztiak ematea bada helburu, gero haiek klima-aldaketaren ondorioetara molda daitezten eta haiek arin ditzaten. Pobrezia murriztuz gero eta gazteen osasuna hobetuz gero, ez dira orain bezain zaurgarriak izango klima-aldaketarekiko. Heziketa, lan-aukerak, osasun-zerbitzuak (ugalketakoak barne) eta

“Gazteek gai izan behar dute klimari hain kaltegarri izango ez zaizkion bizimoduen bilaketan orain arte aurrera egindako bidez baliatzeko, teknologia-aurrerapenei esker.”

segurtasuna: gaur egungo gazteen belaunaldia gerorako prest egoteko ezinbesteko baldintzak dira denak. Eta, batik bat, herri-hirietan bizi diren gazteentzat da hori garrantzitsua, munduko biztanleriaren gero eta kopuru handiagoa hiri-eremuetan bizi da eta.

Pobrezia murriztea funtsezkoa da, baina aberastasuna ezin handiagotu eta sor liteke edozein modutan: modu berriak taxutu behar dira. Garapena lortu nahi horretan ez ote dugu eragingo bederen berotegi-efektuko are gas gehiago isurtzea; herrialde garatuek ere ezin jarrai dezakete gaur egungo isuri-maila berean. Klima-aldaketa eragiten jarraitzen badugu –geroko produkzio- eta kontsumo-ereduetan orain bezainbeste gas edo gehiago isurtzen jarraituko dugulako–, arrisku larri bat izango dugu parean: naturaren eta gizakiaren gaitasunak baino haratago joatea, puntu kritikoa edo muga zeharkatzea. Zorionez, bizitzeko beste modu batzuk egon badaude, eta bizimodu horiek dituzten lekuetan ondo moldatzen dira, gainera. Gazteek gai izan behar dute klimari hain kaltegarri izango ez zaizkion bizimoduen

bilaketan orain arte aurrera egindako bidez baliatzeko, teknologia-aurrerapenei esker.

Gobernuek, politiken arduradunek, iker-tzaileek, emailek eta nazioarteko erakundeek onartu behar dute gazteek eginkizun erabakigarria dutela klima-aldaketara moldatu eta hura arindu behar horretan, eta onartu, halaber, gazteei eman egin behar zaiela eginkizun hori. Gobernuek eta politiken arduradunek sustatu egin behar lukete moldatze eta arintze horri buruzko eztabaidetan gazteek parte hartzea, maila guztietan, gainera: orain erabakitakoa gero gazteek abiarazi beharko dute, eta erabaki horien ondorioekin ere gazteek bizi beharko dute. Ikertzaileek azterlan gehiago egin eta informazio gehiago sortu behar lukete, jakiteko gazteen bizimoduan zer-nolako ondorioak dauden eta erantzunik egokienak zein diren; klima-aldaketaren eraginak aztertzekeo gune gehienetan, izan ere, ez da gai horri buruzko azterlan berriazkorik agertzen.

Emailek onartu behar lukete gaur egun inoiz baino belaunaldi gazte ugariagoa dela munduan, eta horrenbestez, gazteek aldaketa-

eragile moduan ahal duten guztia emateko neurriak hartu. Nazioarteko erakundeek gogor agertu behar lukete gazteak beren buruaren jabe izatearen alde, eta klima-aldaketarekin lotutako politika- eta programa-maila guztietan, gainera. Eta gazteek, azkenik, klima-aldaketak dakartzan erronkei aurre egiteko sareak ezarri behar lituzkete, eta talde moduan antolatatu. Gaur egun garapenean funtsezko eragile direnek azaldu berri dugun moduan jokatzuz gero, gazteei lagunduz gero, alegia, gazteak hobeto prestatuta egongo dira klima-aldaketari erantzun behar horretan parte hartzeko eta dagokien eginkizuna betetzeko, gaur eta gero. Klima-aldaketak lan zorrotza behar du, eta gazteek lan horretan ardura handiagoa har dezaten bultzatu behar genuke. Helduok egiten ez badugu, arriskua handiagoa izango da gu guztiontzat.

# Oharrak

## SARRERA

- 1 Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu Arteko Taldea, 2007: *Cambio climático 2007: Informe de síntesis*.
- 2 Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu Arteko Taldea, 2007: *Cambio climático 2007: Informe de síntesis*.
- 3 The Global Humanitarian Forum, 2009: *Human Impact Report: Climate Change – The Anatomy of a Silent Crisis*.
- 4 Nazio Batuen Biztanleria Funtsa, 2007: *Estado de la población mundial 2007. Liberar el potencial del crecimiento urbano*.
- 5 Giza Kokalekuetarako Nazio Batuen Programa, 2009: *Cities and Climate Change Initiative. Launch and Conference Report*.
- 6 R. Fernández-Castilla, L. Laski eta S. Schellekens, 2008: «Young People in an Urban World» in G. Martine, G. McGranahan, M. Montgomery eta R. Fernández-Castilla (editoreak), *The New Global Frontier. Urbanization, Poverty and Environment in the 21st Century*.
- 7 R. Fernández-Castilla, L. Laski eta S. Schellekens, 2008: «Young People in an Urban World» in G. Martine, G. McGranahan, M. Montgomery eta R. Fernández-Castilla (editoreak), *The New Global Frontier. Urbanization, Poverty and Environment in the 21st Century*.

## MARJORIE

- 1 Nazio Batuen Nekazaritza eta Elikadura Erakundea, 2009: *El estado mundial de la pesca y la acuicultura 2008*.
- 2 Bates, B.C., Z.W. Kundzewicz, S. Wu eta J.P. Palutikof (editoreak), 2008: *El cambio climático y el agua. Documento técnico VI del IPCC*, IPCCren idazkaritza, Geneva, 210 or.
- 3 Dobson A., I. Cattadori, R.D. Holt, R.S. Ostfeld, F. Keesing, 2006: *Sacred Cows and Sympathetic Squirrels: The Importance of Biological Diversity to Human Health*. *PLoS Med* 3(6): e231. doi:10.1371/journal.pmed.0030231
- 4 Hotez, P., A. Fenwick, L. Savioli eta D. Molyneux, 2009: *Rescuing the bottom billion through control of neglected tropical diseases*, *The Lancet*, 373. liburukia, 9674. zk., 1570.-1575. or.
- 5 Nazioarteko Lan Erakundea, 2009: *Give Girls a Chance. Tackling Child Labour, a Key to the Future*.
- 6 Nazio Batuen Biztanleria Funtsa, 2007: *Giving Girls Today & Tomorrow. Breaking the Cycle of Adolescent Pregnancy*.

## MARIAMA

- 1 Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu Arteko Taldea, 2007: *Cambio climático 2007: Informe de síntesis*.
- 2 Nazio Batuen Nekazaritza eta Elikadura Erakundea, 2003: *Género y ordenación de tierras secas*.
- 3 Nazio Batuen Nekazaritza eta Elikadura Erakundea, 2003: *Género y ordenación de tierras secas*.
- 4 Nekazaritza Garapenerako Nazioarteko Funtsa, 2008: *Desertificación*.
- 5 Nekazaritza Garapenerako Nazioarteko Funtsa, 2008: *Desertificación*.
- 6 Basamortutzearen kontrako Borrokarako Nazio Batuen Hitzarmena, 2008: *Fact Sheet 3. The Consequences of Desertification*.
- 7 Nazio Batuen Nekazaritza eta Elikadura Erakundea, 2003: *Género y ordenación de tierras secas*.
- 8 Bates, B.C., Z.W. Kundzewicz, S. Wu eta J.P. Palutikof (editoreak), 2008: *El cambio climático y el agua. Documento técnico VI del IPCC*, IPCCren idazkaritza, Geneva, 210 or.

## MESSIAS

- 1 Nazio Batuen Nekazaritza eta Elikadura Erakundea, 2009: *Situación de los bosques del mundo 2009*.
- 2 Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua, 2009: *Reversing the loss of forest cover, preventing forest degradation in all types of forests and combating desertification, including in low forest cover countries*.
- 3 Nazio Batuen Nekazaritza eta Elikadura Erakundea, 2009: *Situación de los bosques del mundo 2009*.
- 4 Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu Arteko Taldea, 2002: *Cambio climático y biodiversidad, Documento técnico V del IPCC*.
- 5 Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu Arteko Taldea, 2002: *Cambio climático y biodiversidad, Documento técnico V del IPCC*.
- 6 Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu Arteko Taldea, 2002: *Cambio climático y biodiversidad, Documento técnico V del IPCC*.
- 7 Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu Arteko Taldea, 2007: *Cambio climático 2007: Informe de síntesis, Resumen para responsables de políticas*.
- 8 Nazio Batuen Nekazaritza eta Elikadura Erakundea, 2009: *Situación de los bosques del mundo 2009*.
- 9 Basoei buruzko Nazio Batuen Foroa, 2009: *Documento de debate preparado por el grupo principal integrado por jóvenes y niños*.

## KILOM

- 1 Bates, B.C., Z.W. Kundzewicz, S. Wu eta J.P. Palutikof (editoreak), 2008: *El cambio climático y el agua. Documento técnico VI del IPCC*, IPCCren idazkaritza, Geneva, 210 or.
- 2 Bates, B.C., Z.W. Kundzewicz, S. Wu eta J.P. Palutikof (editoreak), 2008: *El cambio climático y el agua. Documento técnico VI del IPCC*, IPCCren idazkaritza, Geneva, 210 or.
- 3 Hezel, Francis X., S.J., 2009: *High Water in the Low Atolls, Micronesian Counselor*, 76. zk., Mikronesiako Mintegia, Pohnpei.
- 4 Bates, B.C., Z.W. Kundzewicz, S. Wu eta J.P. Palutikof (editoreak), 2008: *El cambio climático y el agua. Documento técnico VI del IPCC*, IPCCren idazkaritza, Geneva, 210 or.
- 5 Bates, B.C., Z.W. Kundzewicz, S. Wu eta J.P. Palutikof (editoreak), 2008: *El cambio climático y el agua. Documento técnico VI del IPCC*, IPCCren idazkaritza, Geneva, 210 or.

## MANDISA

- 1 The Global Humanitarian Forum, 2009: *Human Impact Report: Climate Change – The Anatomy of a Silent Crisis*.
- 2 Bates, B.C., Z.W. Kundzewicz, S. Wu eta J.P. Palutikof (editoreak), 2008: *El cambio climático y el agua. Documento técnico VI del IPCC*, IPCCren idazkaritza, Geneva, 210 or.
- 3 Floods – Technical Hazard Sheet – Natural Disasters Profile, <http://www.who.int/hac/techguidance/ems/floods/en/index.html>, egun honetan kontsultatua: 2009ko ekainaren 27an.
- 4 Tropical Cyclones – Technical Hazard Sheet – Natural Disasters Profile, [http://www.who.int/hac/techguidance/ems/tropical\\_cyclones/en/index.html](http://www.who.int/hac/techguidance/ems/tropical_cyclones/en/index.html), egun honetan kontsultatua: 2009ko ekainaren 27an.
- 5 Ramchandran, D. eta R. Gardner, 2005: *Coping with Crises: How Providers Can Meet Reproductive Health Needs in Crisis Situations. Population Reports, Series J*, 53. zk. Baltimore, Johns Hopkins Bloomberg School of Public Health, The INFO Project.
- 6 Nazio Batuen Nekazaritza eta Elikadura Erakundea, 2006: *Gender: The Missing Component of the Response to Climate Change*.

## YOUNESS

- 1 Piguet, E., 2008: *Climate Change and Forced Migration*. 153. ikerketa-dokumentua. Errefuxatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa, Geneva.
- 2 Migrazioen Nazioarteko Erakundea, 2009: *Migración, cambio climático y medio ambiente. Nota de políticas de la OIM*.
- 3 Piguet, E., 2008: *Climate Change and Forced Migration*. 153. ikerketa-dokumentua. Errefuxatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa, Geneva.
- 4 Kniveton, D., K. Schmidt-Verkerk, C. Smith eta R. Black, 2008: *Climate Change and Migration: Improving Methodologies to Estimate Flows*. MRS N° 33. Migrazioen Nazioarteko Erakundea, Geneva.
- 5 Nazio Batuen Biztanleria Funtsa, 2006: *Estado de la población mundial 2006. Hacia la esperanza. Las mujeres y la migración internacional*.

## FATIMA

- 1 Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Hitzarmen Esparrua, 2007: *Climate Change: Impacts, Vulnerabilities and Adaptation in Developing Countries*.
- 2 Munduko Bankua, PNUD et al., 2003: *Poverty and Climate Change. Reducing the Vulnerability of the Poor Through Adaptation*.
- 3 Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu Arteko Taldea, 2007: *Cambio climático 2007: Informe de síntesis*.
- 4 Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Hitzarmen Esparrua, 2007: *Climate Change: Impacts, Vulnerabilities and Adaptation in Developing Countries*.
- 5 The Global Humanitarian Forum, 2009: *Human Impact Report: Climate Change – The Anatomy of a Silent Crisis*.
- 6 Nazio Batuen Biztanleria Funtsa, 2007: *Estado de la población mundial 2007. Suplemento Jóvenes. Crecer en las ciudades*.
- 7 Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Hitzarmen Esparrua, 2007: *Climate Change: Impacts, Vulnerabilities and Adaptation in Developing Countries*.
- 8 Garapenerako Nazio Batuen Programa, 2008: *Objetivos de Desarrollo del Milenio. Informe 2008*.



UNFPA, Nazio Batuen Biztanleria Funtza, garapenerako nazioarteko lankidetzaz-entziaz bat da, eta munduko emakume, gizon eta haur guztiek bizimodu osasungarria izateko eskubidea sustatzen du, denek aukera-berdintasuna izan dezaten. Herrialdeei datu soziodemografikoak erabiltzen laguntzen die UNFPAk, pobrezia murrizteko politikak eta programak ahalik eta modu egokienean taxu ditzaten, batetik, eta bestetik, erabat bermatzeko haurduntza guztiak izango direla nahi izandakoak, erditze guztiak seguruak, gazte guztiak GIB edo HIES gabeak, eta neska eta emakume guztiak duintasunez eta errespetuz tratatuak.

UNFPA - pertsona guztiok garelako garrantzitsu.

Edizio hau Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari eta UNESCO Etxea - Euskal Herriko UNESCO Zentroari esker egin da.



Edizio hau klorotik eratorriko produkturik gabe zurituriko %100 paper birziklatuan inprimatuta dago.



*Argitalpen honi dagozkion berotegi-efektuko gasen isurpenak, isurpen murrizpen proiektuen bidez konpentatu izan dira CeroCO2 ekimenaren bitartez.*

[www.ceroco2.org](http://www.ceroco2.org)